



ARGIA

Suizidioa humanizatzen, testigantzen bidez



Joanes,
bere anaia
suizidioagatik
hil zen



Aroa, depresioa
jasan zuen



Iratxe, bere aita
suizidioagatik
hil zen



Agustin,
bere semea
suizidioagatik
hil zen

26-31. orrialdeak



***"Herri ttipiek badituzte
beren mugak, baina
askatasuna ere eman
dezakete"***

16 | MAIA IRIBARNE



***Mediku faltaren
krisia konpontzeko
Jaurlaritzak egin
dezakeena***

32 | OSASUNA



***"Antipunitibismoa gero
eta zentzuzkoagoa da
gizartean"***

44 | LAURA MACAYA

DATORREN ASTEKO ARGIAREKIN...

LARRUN #309
HILABETEKARI MONOGRAFIKOA



EUSKARAZ BIZI

ZAPALKUNTZA EZ NORMALIZATZEKO MAKINA OLIOZTATZEN

ARGIA.EUS/LARRUN

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | MATERIALISMO
HISTERIKOA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU


AZALEKO ARGAZKIA: **DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA**

Iritziak

- 21 | KARMELO LANDA
- 22 | KATIXA DOLHARE
- 23 | IÑIGO MARTINEZ
- 23 | ARANTZA GUTIERREZ
- 24 | AINGERU EPALTZA

Finkoak

- 38 | ARGIA KOMUNITATEA
- 39 | DENBORAREN MAKINA
- 42 | BIZI BARATZEA
- 50 | DENBORA-PASAK
- 51 | KULTUR-KRITIKAK
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU

SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: **CLIPART COURTESY FCIT**


32 | OSASUN PUBLIKOAN MEDIKUAK FALTA DIRA EDO BORONDATE POLITIKOA?

Jone Gartzia landutako erreportajearen datuak, eskumenak eta ardurak azaldu ditu, behin eta berriz entzuten dugun argudioaren aurrean: "Mediku eta espezialistak falta dira". Osakidetza okupatzailerik gabeko 2.759 plazak kenduta behin-behineotasun tasa %54koa da, Europak ezartzen duen %8ko helburutik oso urrun.

Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL | GENOZIDIOAREN
EKONOMIA PALESTINAN

Francesca Albanese lotsagarri
utzi ditu multinazionalak

Urko Apaolaza

16 | PERTSONAIA | MAIA IRIBARNE

**"Tabu diren gai batzuen
inguruko ekintza sortzaileak
behar ditugu"**

Ametz Aranguren

26 | GIZARTEA

**Suizidioa errespetutik eta
epaitu gabe**

Olaita L. Garaialde

35 | KIROLA

**"Uste dena baino askoz hobeto
bizi zaitezke gurgildun aulkian"**

Eñaut Agirrebengoa

44 | KULTURA | LAURA MACAYA

**"Indarkerian esku hartzeko
marko hegemonikoek ez diote
onik egiten emakumei"**

Danele Sarriugarte

48 | KULTURA | GEROTIK... GERORA

**Agustin Kardaberaz,
"Euskararen berri onak"**

Gorka Bereziartua

ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

**Gobierno
de Navarra**

**Nafarroako
Gobernua**

Jabetza

Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Erredakzioa

Axier Lopez, Eneko Imaz, Eneritz Arzallus,
Estitxu Eizaguirre, Gorka Peñagarikano,
Jenofa Berhokoirigoin, Jon Fernández,
Jon Torner, Lander Arbelaitz, Leire Artola,
Manex Moreno, Maria Ortega, Mikel Garcia,
Onintza Irureta, Urko Apaolaza,
Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Maialen Arana, Maitane Gartzandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produktzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

Salmenta

Karlos Olasolo, Pello Basurto

Banaketa

Olatz Korta

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

Ane Gaztelumendi, Aloña Sorraluze,
Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua: SS 837-2012

ISSN: 0213-909X

Batzorde parekidea: 72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoa

komertzial@argia.eus
komunitatea@argia.eus

Telefonia

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
31001 Iruñea

Ametzagaña taldeko kidea da ARGIA
honako enprekin batera:

antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

iametzta
ADUR software
productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu,
zabaltu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza
aitortu eta baldintza beretan eginez gero.

Lizentzia hau baliagarria da testuentzat
eta, argazkien eta ilustrazioen kasuan,
ARGIAren sinadura daramatenentzat soilik.

Aldizkari honek ekoedizioaren
baldintzak betetzen ditu.

Aztarna ekologikoa:



bDAP202500065


OLATUKOOP

Ekonomia sozial eraldatzailearen
sareko kide gara.





Gora San Panpin!

Performance umoristiko batean gurutze batekin masturbatzen ari zarela irudikatzea delitua izan daiteke Espainiako Legearen arabera. Baina normaltzat hartu behar ei dugu, inoiz existitu ez zen norbait omentzea egurrezko panpina bihurtuta, "munduko jairik onenetako" egitarau publikoan, umeak tartean sartuta eta multinazional baten —Eliza Katolikoa— mesederako. Inposizioa beti ezkutatzen baita tradizioaren atzean. Apaiz eta artzapezpikuak haurrengandik urrun behar ditugu, baita ekitaldi, diru eta jai publiko orotatik ere. Sekten kontuak etxean egiten dira.

📷 Umeen lore eskaintza San Fermini Iruñean. **VILLAR LÓPEZ / EFE**

✍️ **AXIER LOPEZ**



ALBERTO BELOKI UEMA

Hamar urte barru, euskararen arnasgunerik ez

 JENOFA BERHOKOIRIGOIN

UEMA Udalerri Euskaldunen Mankomunitatearen eskariz, 2036an Hego Euskal Herrian euskararen egoera zein izanen den aztertu du Siadeco ikerketa etxeak. Hipotesi batzuk betekoa balira, hemendik hamar urtera ukanen genukeen errealtate soziolinguistikoa "egoera arriskutsuan" dela ohartarazi du UEMAk.

"Euren eguneroko bizimoduan inguruan nagusiki erdara duten euskal hiztunak gero eta gehiago izango dira" edo "gero eta gehiago izango dira euskara lehen hizkuntza bakar gisa izango ez dutenak, erdaraz euskaraz baino erosoago egingo dutenak, eta baita euskara menderatzen ez duten euskal hiztunak ere", horrela laburbildu dituzte *Norantz doa euskara? Hego Euskal Herria 2036 proiektzio demolinguistikoa* ikerlanaren emaitzak. Finean, 1960ko hamarkadatik XXI. mendearen hasierara arte euskara biziberritu zen bezala, orain, berriz ere atzeraldian sartu garela ondorioztatzeko datuak plazaratu dituzte. Hala ere, ez dago fatalitate erik eta "egoera arriskutsuan" egonda ere, hizkuntza politika "eraginkorra eta zehatzagoak" gauzatuz gero bestelakotu daiteke datorrena.

Euskararen erabilera datuei begirata, %60tik gorakoa duten herriak arnagune kontsideratzen dira -horietan, "arnagune beteak" dira %80koa gaindizten dutenak-. Siadecoren lanaren arabera, ez da horrelakorik geldituko 2036an. Eta "arnagune erasanak" -euskararen erabilera %60-%80 izaten dutenak- de-

sagertze bidean izanen dira: biztanleen %0,2 besterik ez da biziko horietan. Arnaguneetan hiztunen %7,2 bizi ziren 1991n; %2,9 ziren 2021ean; eta %0,2 izan daitezke 2036an.

Bestalde, 2011tik 2036ra, %11,6tik %9,7ra apalduko da etxean nagusiki euskaraz aritzen direnen proportzioa -atzerakada batez ere Nafarroan sentituko da-. Euskara eta gaztelania antzeko heinean erabiltzeko joera areagotu egin da azken urteetan eta goraldean segituko du.

Horrez gain, Hego Euskal Herriko biztanleria euskaldunak adinean gora egingen du, eta adin txikikoen parte, berriz, apalduko da, jaiotze tasa apalarengatik, besteak beste. Apalduko da euskaldunen pisua adin tarte gazteenetan. Atzerrian sortutakoen proportzioa ere handituko da azkarki eta horrek ere eragingo du, lehen hizkuntza euskara ez dutenen parte emendatuz joan delako. Finean, euskaldunen pisuaren hazkunde erritmoa "mantsotzen" ari bada ere, EAEn ingoerari eutsiko zaio. Nafarroan, haatik, "behera" hasiko da.

Proiektzioa beltza izanda ere, ondorio baikor batzuk ere azpimarratu dituzte: transmisioaren eta erabileraren bilakaera positiboa da atzerrian sortutakoen artean; gaur egun euskararen ezagutza maila handiagoa da biztanle helduen artean; gaztelaniarekin batera bada ere hainbat etxetan euskarak sarbidea izan du; euskarak "bizitasunean" segitzen du, eta abar. Bilakaera horietan "sakontze-ko" beharra ikusten du UEMAk. ●

Handala ontzia martxan da

 ENEKO IMAZ GALPARSORO

Israelek maiatzean Conscience itsasontzia bonbardatu eta ekainean Madleen itsasontzia bahitu ostean, nazioarteko ekimena berriz saiatuko da laguntza humanitarioa Gazara sartzen. "Erronka hau Gazako umeengatik da", adierazi du Askatasunaren Ontzidiak Siziliatik (Italia) uztailaren 13 goizean abiatzean.

Maiatzaren bukaeran GHF Gazako Fundazio Humanitarioak zerrendan laguntza humanitarioa banatzeari berrekin zioenetik, gutxienez gutxienez 700 hildako egon dira janaria banatzen ari zirela. Horren aurrean, aurreko hilabeteetan Palestinan lurreratzea lortu ez zuten Conscience eta Madleen itsasontzien ondoren, saiakera berria egingo du Askatasunaren Ontzidiak Handala itsasontziarekin, Siziliatik abiatuta.

Itsasontziaren izenak marrazki bizi-dunetako pertsonaia palestinar batean du bere jatorria: "Handala hankutsik ibiltzen den haur errefuxiatu bat da, injustiziari bizkarra eman diona eta hala egiten jarraituko duena Palestina aske izan arte". Itsasontziak "haren espiritua" du, nazioarteko ekimenaren arabera.

Maiatzaren hasieran, nazioarteko 50 ekintzaile zeramatzen Conscience itsasontzia dronekin bonbardatu zuen Israel, Maltatik gertu. Ontziratzeke zain zegoen Mikel Zuluaga Mikelon euskal herritarrek ARGIAri telefono elkarrizketan azaldu zionez, erasoaren unean tripulazioa zegoen soilik ontzian; ekainean, berriz, Gazako kostaldetik 150 kilometro ingurura zegoela Israelgo armadak Madleen itsasontzia bahitu eta bertan zihoazen hamabi ekintzaileak Israelgo portu batera eramane zituen, ondoren bakoitza bere jatorrizko herrialdera bidaltzeko.

Bestalde, Israelgo Defentsa ministro Israel Katzek joan den astean iragarri zuen Gazako bi milioi palestinarrek zerrenda hegoaldean eraikiko luketen "hiri humanitario" batera lekualdatzeko asmoa dutela, Rafah hiritik gertu. *Ynet* Israelgo hedabideak jakinarazi du "hiri humanitario" hori eraikitzeak gutxienez urtebete hartuko lukeela, eta 10 eta 15 bilioi euro arteko gastua suposatuko lukeela. ●

MELOI SALTZAILEA

Torre-Pacheco



JUNE FERNANDEZ

Twerk klasean gertatu zen, Bilbon. Merkataritza-gune batean dago dantza eskola, eta kortinek ez ituzte kristalak erabat tapatzen. Emakumezko lau ikasleok eta irakasleak luzaketak egiten geundela, gure short labur eta topak jantzita, bi mutiko hasi zitzaizkigun kristalaren bestaldetik zirikatzen. Ez zituzten 15 urte baino gehiago. Nire ama izaeraz kontziente izan nintzen, nik umeak baino ez baintuen ikusten haiengan; eraso baino umekeria iruditu zitzaidan. Beste ikasleak, aldiz, amorratuta zeuden. Bata, seguruenik gazteena, altxatu eta oinutsik atera zen dantza eskolatik, mutikoen atzetik korrika.

Buelatu zenean esan zuen umeek ihes egin zutela, baina itzultzen baziren prest zegoela Poliziari deitzeko. “Ezta pentsatu ere, asko jota segurtasun langileari emango diogu abisua”, erantzun zion irakasleak. Orduan, neska gazteak zera esan zuen: “Ohartu zarete mutil horiek ez direla bertokoak? Bata beltza eta bestea moroa. Hemengo gazteek ez dute horrelako errespetu faltarik izaten”.

Momentu hartan, erabat aldatu zen taldeko giroa. Beste bi ikasleek irmo erantzun zuten: “Horrek ez du zerikusirik, eta mutiko horiek seguruenik bertokoak dira”. Hitza hartu nuen nik orduan: “Eskertuko nuke halako iruzkinik ez egitea nire aurrean”. “Ezta nire aurrean ere”, esan zuten beste biek. Irakaslea mutu geratu zen; beltza da bere bikotekidea eta seme-alabak izan nahi ditu berarekin. Ikaskide arrazista isildu zen.

Pozteko modukoa zen iruzkin arrazistak gaitzespen osoa jaso izana. Alabaina, dantzaldia zapuztu zidan egoerak. Bereziki iraingarria iruditu zitzaidan, kontuan izanda *twerk* dantza New Orleanseko komunitate beltzaren ondarea dela, Jamaikako *dancehall* musikatik eratorria, reggaetoia bezala.

Biharamunean hedabideetan irakurri nuen Santiago Abascal laudiotarrak aldarrikatu dituela etorkinen (eta etorkin jatorriko bertokoen) kanporatze masiboak, hurrengo irizpideak hartuta: delitu-egileak, erlijio “arrotzak” inposatu nahi dituztenak eta emakumeak erasotzen dituztenak.

Diskurtso horren beroaldian, pasa den asteburuan faxistek magrehtar jatorriko mutikoak lintxatu dituzte Torre-Pacheco, Murtzian. Gizon zahar baten kontrako eraso (ez dago argi *bulo* bat izan ote den) “etorkinen ehizarako” aitzakia bihurtu dute. *Twerk* kidea irudikatu dut ultrak txalotzen. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



Hondakinak



ULA IRURETAGOIENA

Hondakinak etorkizuneko material berriak dira. Iragarki *marketine-roa* izan daiteke, baina diseinu eta eraikuntzaren ikerketa munduan sormen bideak irekitzeko aukerak ekarriko ditu, dudarik gabe. Europako hondakinen legedia zorrotz jarriko dela iragartzean, nolabait ulertarazten da hondakin industrial eta organikoak zaborrera bota edo erretzen jarraitzea ez dela aukera bat. Drama bat da erabilgarria izan daitekeen materiari erabilgarritasunik ez aurkitzea. Materialaren bizi-zikloaren iraupena eta kudeaketa, eta ekonomia zirkularrean txertatzea, produktuaren kalitatearen parametro bilakatzen dira. Hondakinak hondakin izateari utzi behar diola eta irudimena erabil dezagun eskatzen ari zaizkigu, materiari bizi berriak asmatzeko.

Bio-materialen ikerketa eta prototipatzearen historia-arroan bizi gara, baina ohitura bilakatzen ari da hondakinak material gisa erabiltzea. Arrozaren oskolekin zementu bat eta muskuiluen oskolekin bio-hormigoia. Balearretan poseidon belakia berreskuratzen hasi dira, isolamendu akustiko eta termiko bikaina baita. Belakia, tokiko baliabide bat, arkitektura bernakularrak erabilia baina industrializazioak ezgaitu zuena. Industriak eskaintzen dituen material sintetikoekin liluratu gara ekoizpen eta instalakuntza azkarra bermatu dutelako, kantitate handietan ekoizten delako prezioen jaitsiera handiarekin... baina akaso material merkeen historia-aroa atzean uzten ari gara...

Basque Biodesign Center-ak latxa ardiaren artilea biomaterial bihurtzeko ikerketan dihardu. Ardien ilea baliabide handia da baina garbiketa hain da garestia, debekaturik egon arren artile gehiena erre egiten dela. Artileak espazioko hezetasuna harrapatzen du eta isolatzaile bikaina da, baina oraingoz ez ditu eraikuntzako kalitate eskakizunak betetzen.

Biomaterialekin sortzaileok dugun zeregina zoragarria da, tokikoari so egitea eskatzen duelako sektore desberdinetako begiradak zeharkatuz, hondakinik gabeko fikzioak espekulatzen. ●



EH BA

Lasserre edo *betiko leloaren betiko leloa*

JENOFA BERHOKOIRIGOIN

Egoerak bere horretan segituz gero, Euskal Hirigune Elkargoak ez du izenpetuko EEP Euskararen Erakunde Publikoa osatzeko hitzarmen berria. Orain artekoa urte hondarrean bukatuko denez, baliteke 2026an ofizialtasunik gabe izateaz gain, hizkuntza politika bideratzeko egitura publikorik gabe izatea euskara. Hemen zifren dantza labur bat, larritasunaz ohararazteko: euskal hiztunak %20,1 dira Lapurdin, Baxenabarren eta Zuberoan –Iparraldeko biztanleriaren %37 biltzen dituen Baiona-Miarritze-Angelu hirigunean %8,4 dira-. Eta erabilerari dagokionez: %21,5ak du euskara erabiltzen –frantsesa bezainbat edo gehiago, haatik, soilik %7,1ak-, eta Baiona-Miarritze-Angelun, berriz, %9,6 dira –frantsesa bezainbeste edo gehiago, %1,9k-.

2023ko udan, hizkuntza politikarako beharrak zehazterakoan, partaide bakoitzak (Elkargoak, Departamenduak, Eskualdeak eta Frantziako Gobernuak) 650.000 euro gehiago eman beharko lituzkeela ebartzuten –adostasunik ezenez, 300.000 eurora jaitsi zuten-. Jakin behar da 2017az geroztik ez dutela xentimo bakar batez ere emendatu. Duela hiru aste Parisek jakitera eman zuen 100.000 euro gehiago besterik ez dituela gehituko. Euskal Elkargoak biharamunean erantzun zion baldintza horietan uko egingen liokeela hitzarmenari. Egoeraren larritasuna ikusita, are mingarriagoak dira Departamenduko lehendakari Jean-Jacques Lasserrek euskalgintzakoei egindako adierazpenak: euskararen “instrumentalizazioa” egiteaz gain, “Euskal Herriko bakearen suntsitzaile” gisa sailkatu ditu. *Euskarari trufarik ez* lelopean, Departamendutik Gobernuari presioa egiten aritu izana salatu zutelako uztailaren 7an. Baina, nork ez du oraindik ezagutzen Lasserre? Hemerrotekara jo eta ezin uka Euskal Herriaren eta euskararen aitoritzaren bidean beti izan dela oztopo nagusietariko bat bidaxundarra, frontalki aurka eginda, aldeko mugimendutik urrunduta edota *statu-quo*-a bermatzeko isileko lana eginda. Ipar Euskal Herrian euskararen kontrako diskurtsoa “politikoki ez zuzena” bihurtu zaigun arren (diskurtsoa eta ekintza bi dira... ados gara, hori beste aldi baterako), bakar batzuk segitzen dute beraienean eta Lasserre horietarikoa izateak guti gaitu harritzen.

Deiadarra jo du euskalgintzak. Baina nora arte heldu zaigu oihartzuna? Zenbat jende batuko ginatke egoera salatzen manifestazioa egingen balitz Baionan? Herri gisa, zazpiak bat eginda beteko genituzke karrikak? Krisi potolo hori desblokeatzen laguntzeko lanean badabiltza Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politika arlokoak? Nafarroakoak? *TindEHER* gisakorik ba al dago hiru instituzioen artean? Lasserre ez da aldatzen, Paris ez da aldatzen... eta Ipar Euskal Herriak ere berdin segitu beharko du: herri-presioan. ●

%43,10

dira inoiz lan kontraturik izan ez duten etxeko langileak, baina enplegatzaileen %70ak uste du "baldintza ezin hobeak" ematen dizkietela beren etxeko langileei. EHUren ikerketako datuak dira.

%0,8

baino ez da unibertsitate titulua lortzen duten ijitoen kopurua, Espainiako Ijito Idazkaritza Fundazioaren arabera. Espektatiba eta erreferentzia falta, eskola-segregazioa, aurreiritziak, arrakala ekonomiko eta kulturala... faktore nagusietakoak dira.

100.000

euroko isuna jaso dezake guraso batek. Gasteizko eskolako futbol partida batean irainak bota, mehatxatu eta pertsona bati eraso egiten saiatu zen adin txikikoen aurrean. Arabako Foru Aldundiak kudeatzen duen mota horretako bigarren salaketa da.

"Ustelkeria krisi hau gaindituko dugu"

PEDRO SÁNCHEZ

Azken asteetan izandako ustelkeria kasuek setiatuak, Espainiako Gobernuak presidentek Bost atal eta hamabost neurriko Ustelkeriaren Aurkako Estatu Plana aurkeztu du. Besteak beste, ustelkeriaren kontrako erakunde baten sorrera iragarri du.

2025-07-09



"AZKENEAN ESAN ZIGUTEN ESPAINOLEZ MINTZATZEN EZ GINENEZ, EZ GINTUZTELA BEREN HOTELEAN HARTUKO"

Lapurdikoko eskola batetik saiatu dira Ganbara Hostel Bilbaon aterpea lotzen, baina Behatokian salatu dute idatzizko komunikazioan euskaraz aritzeagatik aterpetxeak ukatu egin diela erreserba.

2025-07-07

"Abalen lerroa banketxeei diru publikoaren transferentzia egiteko erabakia da"



LAB. Lehen etxebizitza erosten laguntzeko Jaurilaritzak berak finantzaturiko abala iragarri berri duen honetan, etxebizitzaren prezioa jaitsi ordez, neurri horrek banketxeetara diru gehiago bideratzea eta espekulazioa elikatzen jarraitzea dakarrela kritikatu du sindikatuak. 2025-07-09

Whatsappa utzi



DIANA FRANCO

Ez naiz buruan ideia hau darabilen bakarra, asko gara munduan Whatsapp eta Telegram mezularitza aplikazioak hartzen ari diren botereaz kontziente bide hori jorratu nahi dugunak.

Familia, lagunak, komunitateak, lana, komunikabideak... Mezularitza aplikazioekin dena dugu eskura. Azken urtean, Whatsapp eta Telegram plataformek adimen artifiziala txertatu izanaren dinamika da gutariko askorengan ardura areagotu duena.

Asteburu askotan bikotearekin tortilla pintxoa hartzeko ohitura dut eta aldagai ugari (ez oso modu kontziente) hartzen ditut kontuan: pintxoa kalitatezkoa izatea, lekuaren garbitasuna, tabernariaren izaera, giroa, prezioa bidezkoa al den, eta zaporea, noski! Erabiltzen ditudan aplikazioetan antzekoa egiten dut, kasu honetan oso modu kontziente: pribatutasunarekiko duen jokabidea etikoa al den, segurua ote den, jabearen izaera eta bere aplikazioaren negozio ereduak munduan duen eragina zapaltzailea ote diren...

Tortilla pintxoa nonahi dago, eta tabernaz aldatzeak ez du kostu handirik pertsonon bizitzan. Beharbada horregatik lan horretan dihardutenak esfortzu handia egiten dute egunero prezioa, kalitatea, giroa, zaporea... ahalik eta modu onenean eskaintzen.

Aldiz, plataformaz aldatzea teknikoki, gehienontzat, zaila ez den arren, hor sortu dugun dinamika lekuz aldatzea beste kontu bat da. Harreman sareak plataforma horietara lotuta gaituzte, eta Whatsapp eta Telegram utzi nahirik ere, ezin dugula ohartzten gara, lagunak, familia, komunitateak, bezeroak, komunikabideak... ez baititugu bidean galdu nahi.

Mastodon.eus sarean gaia zenbait erabiltzailek atera dute azken asteetan, adi nabil esaten dutenari, aukera ugariaren artean hausnarketa irekia egiten ari baitira. Argi dute hau ez dala pintxoak probatzeko tabernaz aldatzea, oso aldaketa esanguratsua dela pertsona askoren bizitzetan, bakarrik hartu ezin daitekeena. Eztabaida sakonean, presa gabekoan, komunitatean hartu beharreko erabakia da, ez dezagun oharkabea boterea esku gaizto batzuetatik okerragoak izango diren eskuetara bideratu. ●



GETTY IMAGES

100.000 lirateke Gazan Israelek hildakoak

JENOFA BERHOKOIRIGGIN

Israelek behin eta berriz ukatu du, baita Nazioarteko Justizia Gortearen aurrean ere, Gazan egiten ari direna genozidioa denik. Horretarako, hil dituzten palestinarrei buruzko datu ofizialak ere gezurra direla diote, Hamasen datuak direlako. Kontua da orain arte Gaza kanpotik egindako ikerketa guztiek Gazako Osasun Ministerioaren zifra horiek gezurtatu baino, handitu egin dituztela. Adibidez, duela urtenete *The Lancet* aldizkari zientifikoak zioen eritasunak eta bestelako zeharkako faktoreak kontuan hartuta, hildakoen kopurua gutxienez 186.000 pertsonakoa zela.

Nazioartean ezagunak diren ikerle batzuek azken ikerketa bat osatu dute. Tartan dira, Michael Spagat ekonomialari britaniarra, Khalil Shikaki politologo palestinarra, PRIO Osloko Bakeari buruzko Ikerketa Institutuko Havard Hegre, Debarati Guha-Sapir epidemiologista indiarra, Jon Pedersen ikerle independentea, Eran Bendavid AEBetako mediku eta ikerlea eta Michael Robbins Arab Barometre ikerketa sareko zuzendaria. Ekainaren 19an plazaratu dute *Gazako gerraren ondoriozko heriotza bortitzak eta ez-bortitzak: lehen mailako ebidentzia berria* ikerketa.

Horren arabera, 100.000 lirateke 2023ko urriko 7aren eta 2025ko urtarileko 5aren bitartean Israelek Gazan hildakoak; horrek erran nahi du urte hastapenean Gazako Osasun ministroak zenbaturiko 45.500 hildakoen

kopurua bikoiztu daitekeela. 2023ko urriaren 7az geroztik Gazako biztanleriaren %4 hil duela Israelek ondorioztatu dute ikerleek –kontuan hartu, gainera, ikerturiko epeaz geroztik sei hilabete pasa direla, egunez egun zenbakiak are gehiago emendatuz–.

Azterketa hori zuzeneko elkarrizketetan oinarritzen da, eta Gazako Zerrendako 2.000 etxebizitza aztertu dituzte, guztira, 10.000 pertsona. Kalkuluei segi, gutxienez 75.200 lagun hil zituen Tsahal armada sionistak –tokiko agintariak epe berean zenbatutako 46.000 hildakoak baino %40 gehiago–. Zuzenean tiroek eta bonbek hildakoez gain, zeharkako biktimak ere kontuan hartu dituzte: gosez, hotzez, egarritz zein zaurien ondorioz hildakoak. Beste, 8.540 gehitu behar zaizkie 75.200 hildakoei. Hildakoen %56,2 emakumeak, haurrak ala adinekoak direla ere zehaztu dute.

Halaber, 12.000 pertsona baino gehiago desagertuta egongo lirateke oraindik, Gurutze Gorriaren Nazioarteko Batzordearen arabera, gehienak hondakinen azpian lurperatuta. Hildakoak zenbatzeko, Gazako Osasun Ministerioak ez du bere datuetan sartzen aurkitu gabeko desagertuen kopurua. Ospitale publiko eta pribatuak informazioan oinarritzen da –gero eta gutxiago direnak, ia denak suntsituta baitaude—, bai eta online jasotako datuetan ere (senitartekoek hildakoen berri ematen dutenean). ●

Beste liburu denda bat galzorian

 GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA

Bikote batek duela kasik hiru urte zabaldu zuen La Grande Illusion denda Hendaia erdigunean, Errepublikak plazan, proiektu independente bat abiatzearen ilusio handiz.

Alokairuen eta higiezinaren garestitze basatiak komertzio txikiei ere eragiten die, ez da dudarik. Liburu denda bat eta bere proiektu independentea kinka larrian daude Hendaian, La Grande Illusion deiturikoa. Izena frantsesez badu ere, hiru hizkuntzatan egiten du lan: frantsesez ez ezik, euskaraz eta gaztelaniaz ere bai. Liburuak eta abarreko materialak hiru hizkuntza horietan eta zenbait kasutan ingelesez ere gomendatzen dituzte La Grande Illusionen. Eta, bereizgarri moduan, haur eta gazteenetzako zurezko jostailuekin hornituriko txoko bat du, helburutzat dutelako, Kazeta-k aipatu moduan, "adin guztietako lagunak irakurtzera gonbidatzea". Komikiak eta jolas interaktiboak dituzte eskuragai espazio horretan.



GIL ARROCENA / MEDIABASK

2022ko udazkenean zabaldu zuten liburu denda Clemence Cieau eta Mario Bompark. Arroxelan jaio zen lehena; kazetaritza ikasi zuen sorterrian, eta Quebecen ezagutu zuen Mario. Marseillan bizi izan ziren gero, eta zenbait liburu dendatan egin zuen lan Clemencek, eta irrati kultural batean Mariok. Ordutik, Gil Arrocenari *Mediabask*-en kontaktatzen ziotenez gero, biziki amesten zuten Euskal Herrian liburu denda

bat eta horri loturiko proiektua zabalitzen, Euskal Herriari ikusten zioten "identitate indartsu eta aberatsagatik". Hendaian hartu zuten bizileku, eta seme-alabak ikastolan matrikulatu zituzten. Bikotea, berriz, euskaltegia.

Kazeta hedabideak azaldu duenaren arabera, ekainaren 17an zabaldu zen herrian La Grande Illusion ixtear zegoenaren notizia. Irailaren lehenan itxi egingo dute saltokia, ordainezin zaielako alokairua pagatzea.

Azken asteotan, 770 sinadurara baino gehiago bildu dituzte proiektuari elkartasuna adierazteko, eta bide batez, Herriko Etxea interpelatzeko, zutik mantentzen lagun dezan. Baina, Herriko Etxeak dioenez, lokalaren jabea partikular bat da eta ezin dezake ezer egin. Dena dela, *Kazeta*-k jakitera eman duenez, liburu denda eta proiektua lekualdatzeko posibilitatea mahai gainean dago, "izaera kooperatiboa hartuta". ●

MOTZEAN

Frantziako Legebiltzarrak dei egin dio Europari "harreman ekonomikoen estrategia aldatu" eta Txinarekin lankidetzak garatzera. AEBak ez ditu apenas zuzenean aipatu, baina "Europak darabilen ikuspegi atlantistak gerra-komertziala" ekarri duela dio.

Konfiantzaren erronka akordioa adostu dute Kanakyko indar independentisten eta leialistean artean. Ozeano Bareko uhartedia herrialde europarraren parte izaten jarraituko luke, baina estatu izaera lor dezake kaledoniarrek hala bozkatzaren bidez.

Justizia Aranarentzat plataforma aurkeztu dute Bilbon, Poliziaren gehiegikerien kontra. Hiru eskaera zehatz egin dituzte: foam balak eta jaurtigaiak debekatzea, polizien identifikagarritasuna bermatzea, eta brigada mugikorra desagitea.

Trapagarango Amazon zigortu dute. Hainbat irregulartasun egotzi dio Eusko Jaurarlitzaren Lan Ikuskaritzak: batetik, istripuei buruzko dokumentuak ezin direla bateratu, eta bestetik, istripuaren izaera lanekoa den ala ez erabakitzea ez dagokiola Amazoni.

GENOZIDIOAREN EKONOMIA PALESTINAN

FRANCESCA ALBANESEK LOTSAGARRI UTZI DITU MULTINAZIONALAK

Carrefour, CAF, Crédit Agricole, BlackRock... Francesca Albanese Palestinar Lurraldeentzako NBEko errelatore bereziak enpresa sare handi bat egin du Israel burutzen ari den Gazako genozidioaren konplize bere azken txostenean, eta horien arduradunak ikertzeko eskatu du. Munduko gobernuek begiak estaltzen dituzten bitartean, italiar jurista hau da nazioarteko goi kargu bakarretakoa ahotsa altxa duena palestinarren aurkako krimenen aurrean. "Batzuentzat, genozidioa errentagarria da", esan du Genevan, txalo eta irain artean. Ez zaio merke atera ausardia hori, besteak beste zentsura, zigorrak eta presioak jasan dituelako.

 **URKO APAOLAZA AVILA**

Israel Gazan egiten ari den genozidioak mundu mailan denon inplikazio politiko eta etiko ikaragarria izateaz gain, enpresa eta sektore askorentzat etekin ekonomiko itzelak ezkutatzan ditu. Francesca Albanese Palestinar Lurraldeentzako NBEko errelatore bereziak uztailaren 3an aurkeztu zuen erakunde bereko Giza Eskubideen Kontseiluaren aurrean Okupazioaren ekonomiatik, genozidioaren ekonomiara izeneko txos-

tena, eta bertan hainbat sektoretako multinazionalak eta bankuak seinalatu ditu genozidio horren kolaboratzaile eta konplize gisa.

Albanesek ez du inor epel utzi, eta espero zen bezala, oso gogor agertu da Gazan gertatzen ari denarekiko Mendebaldeko gobernuek eta enpresek duten jarrerarekin. Berehala etorri zaizkio kritikak errelatoreari, berehala zentsura eskariak, eta berehala mehatxuak eta erasoak

eskuindarren eta negazionisten partetik. Izan ere, 48 urteko Italiako Campaniako jurista honek lehendik ere hainbat ikerketa argitaratu ditu Palestinako giza eskubideen urraketen inguruan –2024an idatzitako Genozidioaren anatomia, besteak beste– eta bera da NBE bezalako nazioarteko erakunde batetik gauzak argi eta garbi esaten ari den ordezkari bakarretakoa. Oraingoan ere ahobizarrik gabe hitz egin du: "Genozidioa ez bada orain



APARTHEIDA

Palestinarrak Israelen eskutik 1967tik jasaten ari diren egoera salatzeko hainbat txosten idatzi ditu Francesca Albanese NBEko errelatore bereziak, eta lehena izan da berea bezalako kargu batetik esaten Gazakoa genozidioa dela. Irudian, Bruselan, Europar Parlamentuko The Left taldeak gonbidatuta hitzaldia ematen 2024ko azaroan.

THE LEFT

arte gelditu, hori izan da jarduera oso lukratiboa delako askorentzat", esan du.

Sistema honetan preso gaudela ziurtatu du errelatoreak, "araurik gabeko kapitalismoaren" preso, eta Israel praktikatzen ari dena interes komertzialek sarritan egin dutena dela: indigenei lurrak kentzea. "Dominazio mota horri 'kapitalismo arraziala eta koloniala' deitzen zaio", irakur daiteke Albanesez NBE aurkezturiko idatzian.

ZEIN ARI DA ABERASTEN GENOZIDIOAREKIN?

Txostenak 60 multinazional, banku eta erakunde inguru aipatzen ditu, baina Albaneseren esanetan, horien konplizitatea "icebergaren punta" baino ez da, eta ohartarazi du Israelek Palestinan ezarri duen apartheid sistemak eta egiten ari den sarraskiak parte-hartze korporatibo askoz sakonagoa duela: "Dauden guztiak dira [genozidioaren konplizeak], baina

ez daude diren guztiak", esan du. Goazen korporazio horien izenak aletzera.

BlackRock, Vanguard eta Allianz inbertsio funtsak dira Israelen finantza sostengu nagusia Gazako eta Zisjordaniako bere kanpaina militarrentzako. Israelek 8.000 milioi dolarretako balioa zuten "gerra bonoak" kaleratu zituen 2024an Defentsarako aurrekontua bikoizteko, eta 36 herrialdetako 400 erakundek hartu zuten parte salmenta makabro ho-

rretan, tartean, aipatu funts horiek, bai-
na baita BNP Paribas, Barclays, Crédit
Agricole eta beste finantza entitate ba-
tzuk ere. "Honek guztiak ahalbidetu du
Tel Aviveko burtsan kotizatzen duten
enpresen akzioak %179 igotzea Gazako
asalto hasi zenetik", ondorioztatu du
txostenean.

Gainera, enpresa teknologikoetan
IBM, Microsoft, Amazon eta Google
nabarmendu daitezke, beste batzuen
artean. Txostenak dio enpresa horiek
eskainitako zerbitzuen bidez palesti-
narren datu biometrikoak, populazioa-
ren gaineko kontrola eta adimen arti-
fiziala erabili dituela Israelek helburu
militar eta diskriminatzaileak aurrera
eramateko.

CAF, "FUNTSEZKO"

Eraikuntzaren sektorean, hondeamaki-
nak ekoizten dituzten enpresa ugariak
Gazako azpiegiturak eta labore lurra-
k deuseztatzen lagundu dute, hala nola,
Caterpillarrek, Hyundaik eta Volvok.
Bestalde, "hainbat enpresak errepideak
eta garraio publikoa garatzen lagundu
dute, funtsezkoa kolonien ezarpena-
ko eta hedapenerako", dio txostenak,
eta horien artean dago CAF -zehazki,
"Spanish/Basque" deitzen dio Beasain-
go konpainiari-, Jerusalemek Zisjorda-
niara egiten ari den trena dela-eta.

**Israel Palestinan
praktikatzen ari dena, interes
komertzialek munduan
sarritan egin izan dutena da:
indigenei lurrak kentzea.
"Dominazio mota horri
'kapitalismo arraziala eta
kolonialista' deitzen zaio",
dio NBEko errelatoreak**

Ez dira gutxi Euskal Herrian CAF kri-
tikatu dutenak proiektu horrengatik,
pasa den ekainean Donostian manis-
festazioa egin zen, esaterako -Argia.eus-en
eskueran duzue horren inguruan Maria
Ortegak idatzitako Apartheid isilaren
geltokiak erreportajea-. Bada, NBEko
txostena publiko egin den egunotan, CA-
Feko hainbat enpresa batzordek Israe-
lekin harreman komertzialak amaitzeko
eskatu diote zuzendaritzari, eta Amnistia
Internazionalak ere Jerusalemgo trenbi-
dea bertan behera uzteko eskatu dio.

APARTHEIDAREN KATE EKONOMIKO LUZEA

Txostenak beste arlo batzuetan ere ja-
rri du azpimarra. Adibidez, energiaren
eta elikaduraren arloan Gazako sarras-
kian interes handiak dituzten enpresak
atzeman ditu Albanesek: Israel ikatzez
hornitzen duten Suitzako Glencore eta
AEBetako Drummond multinazionalak,
BP, Petrobras eta Chevron petrolio kon-
painiak, eta Tnuva, Netafim edo Meko-
rot israeldar elikadura eta ur kontsor-
tziok, batzuk aipatzearren.

Ez da hor amaitzen zerrenda. Booking
eta Airbnb alokairuentzako aplikazioek
badute euren partea "okupazioaren tu-
rismoa" sustatzeko garaian. Carrefour
bezalako supermerkatu kateek edo
Maersk ontzi-enpresak, bestalde, "zuzenean
jarduten dute kolonietan, eta hango
ekonomia sostengatzen dute, diskrimi-
nazio-zerbitzuen bidez kolonia horien
hedapena erraztu eta apartheidean parte
hartzen baitute", dio txostenak.

Massachusetts Institute of Techno-
logy AEBetako zientzia erakunde pres-
tigiotsua eta Europar Batzordearen Ho-
rizon Europe programa ere jo-puntuan
jarri ditu Albanesek, ikerkuntzaren bi-
dez eta Israelgo unibertsitateekin egin-
dako akordioen bidez lagundu baitute
genozidioarekin zerikusia duten hain-
bat proiektutan, tartean, Gazan Israelgo



ENPRESAK Txostenean, Euskal Herrian ezagunak ditugun hainbat enpresa ditu aipagai Albanesek (ezkerrean) eta arlo ugaritakoak bereizi ditu, energiati hasi eta eraikuntzaraino. Eskuinean, txostena aurkezteko erabilitako afixetako bat.

armadak hainbeste erabili dituen dro-neak hobeto kontrolatzeko.

NBEen errelatorea oso zorrotz agertu da bere txostenean multinazional, enpresa eta banku horiekin guztiekin, eta haien arduradunak eta goi karguak ikertu eta kartzela zigorrarekin pertsegitu beharko liratekeela uste du, zuzenean ari direlako kolaboratzen Israel Gazan egiten ari den genozidioarekin eta "nazioarteko zuzenbidearen urraketekin".

Albanesek ondorioztatu du genozidioak "irabazi handiak" utzi dituela askorentzat, eta estatuei eskatu die hautsi ditzatela Israelekin dituzten inbertsio harremanak. Enpresei, bere aldetik, palestinarrak indemnitzatzeko eskatu die: "Palestina, mundu honen porrot politiko eta moralak islatzen dituen ispilua da. Genozidio hau gelditzeko ez da bakarrik haserrea behar, hori posible egiten duenarekin hautsi eta desmantelatzeko ausardia behar da".

ALBANESE: ZENTSURA, ZIGORRAK ETA... MAFIA

Napoli ondoko Ariano Irpino herrian jaioa, Francesca Albanesek Zuzenbide ikasketak egin zituen, eta urte asko aritu da NBEko giza eskubideen arloko jurista eta aditu gisa. Horrela, palestinarren egoera gertutik ezagutu du denbora horretan. 2022an NBEko errelatore izendatu zutenean, Gazakoa genozidio bat dela esaten lehena izan zen, eta oso irmo aritu da salatzen Israel 1967az geroztik Palestinako lurralde okupatuetan egiten ari den apartheidia.

Hala, lobby sionistak "antisemita" moduan aurkeztu du errelatorea, eta apiril honetan Israel eta AEBak kargutik kentzen saiatu dira, arrakastarik gabe baina. Hala ere Israelek non grata pertsona izendatu du eta Gaza zein



DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

BOIKOTA Donostian manifestazioa egin zuten ekainaren 14an, CAFek Palestinan duen tren proiektua geratzeko. Israeli boikota egiteko mugimendua mundu osoan zabaldu da.

Zisjordaniara bidaiatzea eragotzi dio. Eta orain, azken txostena argitaratu ondotik, Trumpek bere eskuz sinaturiko dekretu baten bidez Washingtonek zigorrak ezarri dizkio, AEBetara bidaiatzea ere ezinezkoa izan dezan.

Presio horren ondorioz, makina bat bider zentsuratu dute Albanese hitzaldiak eman behar zituen tokietan, adibidez Alemanian, Berlingo eta Municheko unibertsitateetan, edo Wurzburgoko unibertsitatean. Azken zentsura eraso genozidioaren ekonomiari buruzko txostena argitara ekarri ostean etorri zaio italiarrari: Suitzan, Bernako Unibertsitatean mahai-inguru batean parte hartu behar zuen baina antolatzaileek bertan behera utzi dute, "muturreko posturak" izateagatik.

Erradikala, partziala edo antisemita izatea, bere kargutik harago aritzea, edo "AEBetako eta munduko ekonomiaren kontra kanpaina onartezina" burutzea, hori guztia leporatzen diote italiarrari. Baina berak jarraitzen du temati, nazioarteko zuzenbidea eskuan, salatzen eta salatzen.

"Seguru sentitzen al zara?" galdetu dio Publico TVko kazetariak duela gutxi egindako elkarrizketa batean: "Seguru sentitzen al gara multinazionalen interes ekonomikoek herritarren interesek baino pisu handiagoa duten mundu batean? Ni ez", erantzun du berak, irmo, temati. "Gero eta gehiago ari naiz ikusten ideologia eta metodo mafioso bat; konexio bat dago gai politikoen eta gai ekonomikoen artean, eta ni natorren tokian horrek mafia izena du". ●



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia

T. 943 420 624

zinkunegioptika.com



Maia Iribarne Olhagarai

NORBERE PAISAIATIK ETA EMEKI



TABU DIREN GAI BATZUEN INGURUKO EKINTZA SORTZAILEAK SORTU BEHAR DITUGU



Aspaldi ez bezala hunkitu nintzen Bloñ lehen aldiz ikustean. Bizi osorako ahots bakarra entzun ahalko banu kantuan, zalantzarik gabe, Maia Iribarnerena litzateke. Obretan ari dira etxe barnean eta inguruko zuhaitzen itzalpean jarri ditugu aulkiak, parez pare. Mintzatu gara elkarrekin aritu eta konpartitzearen edertasun eta indarraz eta, bukatu dugunerako, otordurako mahaia prest dute etxe barrukoek, denondako.

 AMETS ARANGUREN ARRIETA  DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

Zer duzu momentu honetan esku artean?

Bihurgune batean naiz justu orain. Bukatu berri dugu Bloñekin egin dugun urtebeteko kontzertu bira. Hala ere, kontsideratzen dut momentuko proiektuetako bat dela, oraindik biziki fresko delako bukaera eta segituko dugulako.

Musikan badut beste proiektu bat: Habia. Horrekin alderantziz, 2021ean atera genuen disko bat, gero anitz jotzen ibili gara eta aurten hartu dugu urte lasaiago bat disko berri baten konposatzeko, beti ere LagunArte konpainiarekin. Ez dugu oraino grabatuta, baina prest dugu. Eta gero, zineman, dokumental luze bat egiten ari naiz Altxalili kabaretari buruz, epe luzera.

Zer alde dago musikan ibiltzen den Maiaren eta zineman ibiltzen denaren artean?

[Barreak]. Denbora desberdinetan egiten dut lan batean eta bestean. Jadanik musikan ez naiz sekula bakarrik ari eta egia da horrek ematen duela energia bat non gauzak fiteago aitzinatzin diren. Atzematen dut momentukoagoa dela, biziagoa. Zineman, aldiz, badira arrunt denbora desberdinak, biziki lan bakartia da zati handi batean. Gero, grabaketetan, bistan dena, kolektiboan egiten dira gauzak, baina etxean pasatzen dut denbora anitz bakarrik pentsatzen, idazten...

Bakarrik aritzea ere maite duzu?

Bai. Pentsatzen dut maite dudana dela

bien arteko oreka hori, nahiz eta biziki akigarria den gauza anitz metatzen direlako. Baina bai, bistan dena, biziki maite dut ukaitea proiektu bat non badakidan eta asumitua dudan emeki aitzinatuko dela.

Nondik eta nola sortu zen Bloñ, talde gisa?

Buf, hori anitz-anitz aldatu den proiektua da. Hastapen batean Paxkal [Iri-goien] eta biok egiazki elkartu ginen nahi genuelako zerbait egin elkarrekin, baina ez genekien batere zein forma hartuko zuen. Bañolet proiektua sortu genuen orduan, eta hor aski argi genuen nahasiko zirela hainbat arte-diziplina: ikus-entzunezkoa eta musika, batez ere.



Maia Iribarne Olhagarai

LASA, 1995



Lasan (Nafarroa Beherea) jaio zen Maia Iribarne duela 30 urte eta bertan bizi da egun. Derrigorrezko hezkuntzarekin paraleloan aritu zen musika ikasketak egiten Baionako kontserbatorioan. Aretxabaletan egin zuen gero ikus-entzunezko komunikazioko gradua eta master bi ondoren: Arte Ederretan batartzelotan (Herrialde Katalanak) eta dokumentalgintzan bestea Lussas-en (Frantziako Estatuak). Intermitentzia estatusekin dabil egun lanean, musikari zein zinemagile gisa.

Beraz, film bat egin genuen eta disko bat.

Musikarekin hasi ginen eta gero emeki-emeki hasi ginen giro eta pertsonaia batzuk asmatzen. Eta, horiekin batera, aski fite heldu zen mundu oso bat eta istorio batzuk. Hastapenean serie bat izan behar zena, 50 minutuko film bilakatu zen.

Bagenekien filmean biziki zentrala izanen zela musika; horretara eramaten gintuen naturalki eta izan da paraleloan aitzinatu dugun zerbait. Ez genekien gero gauza biak nola josiko ziren.

Zuek izanda hari finez, nola bestela?

[Barreak]. Hastapen batean pentsatzen genuen hartuko zuela zine-kontzertu forma bat, joko genituela kantutak zuzenean kapituluaren artean. Aski fite abandonatu genuen ideia hori eta azkenean gertatu dena izan da filmari eman diogula forma oso bat, ez kapituluka, eta utzi dugula taldearena berantagorako.

Biziki proiektu eder eta eroa izan da, espontaneoa, arrunt inozentzia eta inpulsibitate egina. Baina gero izan dugu ere proiektu horren B alde. Dena egin dugu sosik eta denborarik gabe, eta muntaketa prozesua biziki luze eta akigarria izan da; beraz, horrek ere ukan du beste inpaktu bat proiektuaren bukaera aldera.

Gero, ederra izan da ikustea hemen go gelak betetzen, jendea kurios eta interesatua eta ohar hunkigarriak. Baina ukan ditugu ere ohar aski bortitz edo desplazatuak, errealitatearen zaflako bat. Heldu ginen gure utopiatik, non dena egin dugun euskaraz, dena izan den auzolanean... Eta hedapenean, danba! Oroitarazi digute lurralde arrunt kolonizatu batean bizi garela oraindik.

Nondik heldu da zaflakoa?

Bereziki frantsesen partetik ukan ditugu ohar batzuetatik. Guretzat zutabe zentraletako bat zen proiektu horretan euskararena, nahi genuen bururaino eramanez, euskaraz nahi genuen hedatu. Azpititulatu bezainbat saio nahi genuen izatea euskara hutsean. Basiakoak iduritzen zaizkigun gauzak, baina jendeak ez dituenak ulertzen. Jendea ez da ohartzen guk egunerokoan bizi dugula bortizkeria hori.

Gero, Bloñek eman digu hauspo berririk, erreparazio pixka bat [barreak]. Iduritzen zait berriz atzeman dugula

Bañoleten proiektuaren esentzian zen hori, elkarrekin jostatzearena. Bikaina izan da harrera eta publikoarekin kantuek hartu dute beste dimentsio bat eta osatu dira gauzak, borobildu dira.

Espero zenuten harrera hori?

Batere ez. Hastapenean pentsatu genuen "eginen dugu kontzertu hau, hila bateko proiektu izatera mugatuko dugu" [barreak], zazpi kontzertu izanen dira, EHZN eginen dugu gure azken erokeria, motibatuko dugu jende anitz eta horrek emanen dio puntu finala. Eta, azkenean, hain ontsa pasatu dugu guk, eta jendeak egin dizkigu hainbeste proposamen, erabaki gurela segitzea. Beraz, izan da urtebetera hedatu den biratxo bat. Biziki hunkigarria izan da jendearekin sortu dena. Hastapenetik konfiantza eginez jin da jendea.

Guk uste genuen proiektuak zuzenean ez zuela funtzionatuko, "sobera tarte laburra da hainbeste mugimendu kabitzeko barnean" pentsatzen genuen, ez ginen batere segur. Eta azkenean uste dut hori izan dela gehien azpimarratu den ezaugarria, eta guk ere gehien maitatu duguna. Leku biziki desberdinetan jo dugu: leku super punki batzuetan, edo alderantziz, gela ofizialago batzuetan, edo, ekainaren 13an, azken kontzertua, Lasako elizan. Aldi oro hartu du forma desberdin bat eta aldi oro sortu da giro zinez hunkigarri eta konektatua. Nik sentsazio hori ukan dut.

Garazira begira jartzen naizen aldiro, komunitatean zaituztet gogoan, kolektiboan.

Irringarria da [barreak]. Pentsatzen dut baduela horretatik, baina kanpotik hori ematen badu ere, gero herri ttipietan bizi gara, baserri aldean. Beraz, ez, ez gara beti elkarrekin batere [barreak].

Kulturalki aktiboa den jende aldetik ez da bereziki dentsitate handia Garazin?

Bai, beharbada. Ez naiz sobera oharitzen horretaz, baina agian izan dira herri-praktikekiko edo sormenarekiko transmisio gune azkar batzuk hemen kokatu direnak. Pentsatzen dut libertimenduen dinamiketan, adibidez. Dantza taldea edota musika eskola ere hori dira. Egia da hemengo anitz pasa garela musika eskolatik eta bazela kristoren dinamika horren inguruan, eta oraino badela. Denek kantatu dugu haurtzaro-



tik koruan, denak aritu gara anitz musikan eta bestelakoetan elkarrekin. Beraz, bai, erranen nuke izan direla transmisio erreferente batzuk belaunaldi batzuk markatu dituztenak eta horrek ukan dela bere eragina.

Ikusten duzu jendea hori egiten eta, beraz, zuk ere gogo duzu. Gero ez da batere borroka irabazia eta hori ikusten da urtero behar dela batailatu gauzak sortzeko, ez dut atzematen biziki instalatua den zerbait denik ere, behar da segitu elikatzen.

Badakit gaztetxearen ekimenetaz bizilagun batzuk kexu direla.

Hori, adibidez. Gaztetxea kokatzen da Garaziko karrikarik turistikoenean. Urte zailagoa da egoera, dena da turismoari bideratua, herriko politikak barne. Jendea futitzen da ekitaldi kulturaletaz.

Gaztetxea leku horretan erresistentzia gune ttipi bat da, baina urtero borroka handia da baimenak ukaiteko. Aurten ere ez dute karrikan kontzertuak egiteko baimenik eman.

Komunitate trinko eta txikiaz mintzatu gara. Badu alde txarrik horrek?

Baditu bi aldeak: ona eta txarra. Herri ttipietako errealitateek badituzte beren mugak, baina askatasun bat ematen ahal dute ere.

Altxaliliren dinamika muga batzuei erantzuna izan daiteke... Bertako kide gehienek luzaz pentsatu dute *queer* izatea, euskaldun izatea eta baserri aldekoa

izatea ez zirela bateragarriak. Ez zutela ko errepresentaziorik, bazirelako hainbat tabu, moral katolikoaren pisua... Eta haien dinamika izan da elkartu eta elkarrekin zerbait asmatzea, eta preseski horrek eman du beste jostaleku bat mila gauza berri sortzeko.

Pentsatzen dut gure inguruan zeuden dinamika batzuek edo euskalduntasuna ulertzeko manera batzuek definizio hertsiegi bat ematen zutela, eta horietan bere burua ezagutzen ez duenak asmatzen duela beste zerbait beste batzuekin. Horiei esker zabaltzen da ere ulerkeria.

Zer da proiektu horretatik erakartzen zaituena?

Altxalili eta Bloñ parekatzen badituzu, ez da parekagarria beharbada, baina ene momentuko bi gauzak direnez [barreak], atzematen dut badugula hizkuntza komun bat bezala, gauzak gure lekutik kontatzeko xedea, paisaia batetik, ez hainbeste forma edo estilo batetik. Jendeak pentsatuko du ez duela koherentziarik, kaotikoegia dela proposamena. Baina nik maite dut hori, zeren eta errekonozitzen naiz horretan, hartzen dut nahi dudana nahi dudana momentuan, eta maite dut biziki kaos eta askatasun hori. Hortik abiatuz ateratzen dira usu gauzarik pertsonal eta intimoenak, beharbada ere jendearengana iristen direnak. Ni, bederen, manera horretan naiz hunkitua.

Oroitzen naiz Altxalili ikusi nuen lehen aldiaz. Ezin dut deskribatu zein formatan izan nintzen hunkitua. Intimidade partekatutako hori, gauza biziki zuzen hori uste dut iristen dela bai ala bai jendearengana. 2022a biziki urte berezia izan zen niretzat:

Leire, ene ahizpa, galdu berri genuen biziki bortizki, eta urte berean haurdun gelditu nintzen.

Bizia eta heriotza nahasi, korapilatu eta hertsiki lotu ziren eta une horretan nuen ikusi Altxalili. Memento horretan zailtasunak nituen jendearekin egoteko, dolu kontestuan nintzen, eta ikusgarri horrek, besteak beste, berriz zerbaitekin konektatu ninduen. Banuen gogoaz bizitzeko hemen, ene lekuan, ene ingurukoekin eta inguratzen nauten elementu guztiekin.

Altxaliliko lagunek proposatu zidatelarik haiekin abentura horretan sartzea, Gastibeltzakoak bidelagun, zinez ikusi nuen seinale baten gisan, eta "lotu bizi-

“
**Pentsatzen dut
ene alabak ikusten
badu jendea hori egiten,
berak ere gogoaz ukanen
duela faltan dituen
erreferentzia horiek
sortzeko”**

tzari” pentsatu nuen. Biziki eskertua naiz proiektu horrek eta haiek ekartzen dida-tenarekin.

Behin baino gehiagotan aipatu duzu transmisioa. Orain ama zarela, arduraz bizi duzun gaia da?

Uste dut aski naturaltasunez bizi dudala. Bistan dena, gure inguruneak eta munduak kezkatzen naute eta etorkizun iluna imajinatzea errazegia da, maleruski. Baina ene eskala ttipian aski naturaltasunez irudikatzen dut transmisio hori.

Iruditzen zait erreferente edo erreprezentazio ahalik eta anitzenak sorraz-



tea dela lanik garrantzitsu eta handiena. Horrek sortuko du transmisio natural bat eta, gainera, ez dena finkatua, zeren eta nik nahi-ko nukeena transmititu da gure lekutik ere egiten ahal ditugula gauzak arrunt guk nahi dugun maneran. Pentsatzen dut ene alabak ikusten badu jendea hori egiten, berak ere gogoia ukamen duela faltan dituen erreferentzia horiek sortzeko.

Loturak jaialdiaren laugarren edizioa ospatu berri duzue. Byung-Chul Han-ek dio erritua dela denboran espazioan etxea dena. Erritua al da Loturak?

Loturak sortu genuen Leirek [Leire Iribarne, Maiaren ahizpa] leku desberdinetako jendearekin sortu zituen loturen azkartzeko eta nolabait beste forma batez bere bizia edesten segitzeko. Hortik atera dena eta laugarren edizio hori ere biziki azkarra izan da, deskribatu duzun hori dira preseski gure loturak. Koadro berezi horretan ere pentsatzen dut musikak hartzen duela beste dimentsio bat eta errealki lotzen gaituela denak, leku eta momentu horretan garenak. Ez gara bakarrik horrelakoetan, gure hilak gurekin ditugu argiki.

Une horretan hor dago dena, behar den guztia, ezta?

Bai, arrunt. Mikro mundu batzuk dira, zinez. Arrunt hori da gainera nik maite dudana. Hori nuen erraten lehen, hunkitzen nauena hori zela, sentitzen duzularik sortzen direla horrelako mikro mundu batzuk momentukoak. Eta bai, badu

erritualetik horrek, baina *uf*, pasatzen zara mila emoziotatik. Bizitza ttipi batzuk balira bezala da, leku eta momentu batzuetan kondentsatzen direnak. Niretzat horiek dira bizi ditudan esperientzia artistiko bizenak. Partikularki dira intentsoak artistikoak direlarik, jende anitzekin direlako.

Maite dut ekitaldi horri eman diogun forma. Aldatzen ahal da urtero, baina aski hastapenetik mantentzen dugu azken egunean mendi ibilaldi bat egitea eta bikaina atxemaiten dut horrek ekartzen duena ere, zein hats ekartzen dion asteburuari. Mugimenduan jartzen gara denak elkarrekin, igotzen gara, hartzen dugu altura, lotzen ditugu kantua eta mendia edo ingurunea eta gauzak beste manara batez zabaltzen dira.

Biziki kontent gara denak momentu hori elkarrekin bizitzeaz, zeren eta ez da existitzen doluaren kolektiboki bizitzeko espaziorik, eta honekin iduritzen zait hori dela ere entseatzen garena proposatzen: jin dadila bakoitza berearekin eta espero dut bakoitzak sentituko duela espazio bat hori elkarrekin bizitzeko.

Dolu prozesuetarako umezurtz gauden honetan, hobe genuke Loturak bezalako beste batzuk asmatzen hasi...

Guri horretan digu ekartzen alimaleko indarra. Biziki intentsoa da eta husten gaitu emozionalki, baina gero ematen digu urtebeteko indarra. Ene ustez argi da behar ditugula horrelako momentuak asmatu. Tabu diren gai batzuen inguruko ekintza sortzaileak sortu behar ditugu. ●



Iritziak

Zenbait traba eta bide bat



KARMELO LANDA MENDIBE
HISTORIALARIA

Gauzak ez dira horrela, baina horrelaxe daude, bai. Euskal erreferente politiko ofizialak Espainiara eta Frantziara begira daude Euskal Herrira bainoago. Estebanek eta Otegik etengabe kontseiluak ematen dizkiote Sánchezi gobernagarritasun modu berriaz eta Espainiako Estatuak hemendik aurrera hartu behar duen norabideaz. Nafarroa Garaian Chiviteren gobernu espainiarzalea zaborretik nola garbi atera bihurtu dute kezka nagusi, eta garbiketa batzorde ikertzailearen buru jarri dira ahalegin horretan. Bitartean, Zuberoa, Lapurdi eta Nafarroa Behereko EH Bai ere “*Face à l’extrême droite*” [Eskuin muturraren aurrean] jartzen da frantsesez eta Frantzian, beraz, eta ezinbestean, Macron, Lasserre eta Melançon-ekin bat eginda.

Nazio-krisi honen dimentsioa neurtu behar dugu. Euskal Herriko erakunde politiko-instituzionalak, Ipar zein Hego, estatu kolonizatzaile bien mende kokatu dira eta beraien sistema politikoak propiotzat hartu dituzte. Behinola abertzaleztat genituen bi euskal alderdi politiko-instituzional nagusien jokabidea modu sakonean aldatu da. Alderdi jeltzalea praktikan korporazio bihurtu da, eta elite ekonomiko zehatzen zein familia multzo ezagunen zerbitzura jarri da, euskal nazioaren premien gainetik. Horrela soilik uler daiteke EAJren jokabide jarraitua eta aliantza politika prak-

Nazio-krisi honen dimentsioa neurtu behar dugu. Euskal Herriko erakunde politiko-instituzionalak, Ipar zein Hego, estatu kolonizatzaile bien mende kokatu dira

tikoa, gehiengo abertzalearen aukera baztertu eta PSOEn komodina hobestea, “kudeaketa gobernu subalternoak” eratzeko orduan.

Garai bateko ezker abertzalean ere norabide aldaketa sakona gertatzen ari da. Erabaki estrategikoak hartu ditu goitik behera, eta etxe barruan *a posteriori* kontsulta legitimatzaileak bai, baina kontraste, eztabaida eta alternatiba posiblerik onartu gabe, eta bide horrek estatu biekiko politika subalternora eta jeltzaleekiko *des-enpate* edo berdinke-ta-hauste ezinezkora darama etengabe, taktika pragmatista horien esklabo. Paradoxa ere bada, baina jeltzaleek eta bilduzaleek ere bakoitzaren erreferente publiko nagusiak azkenaldian foro publiko espainiarretan sortu dituzte, eta euskal politikan baino espainiarrean

jasotzen dituzte txalo gehiago. Bigarren kasuan, gainera, ERCrekin aliantza estrategikoa deklaratu ondoren, harekiko bide paraleloa jarraitu dute, agian asimilatu gabe oraindik haien esperientzian gertatua: Generalitateko gobernua lortu zuten, bai, baina ondorioak ez dira izan batere onak. Besteen esperientzietatik ikastea komeni izaten da.

Gure nazio-krisiaren dimentsioa ez da, baina, eremu politiko instituzionalera mugatzen. Aitzitik, gizarte arlo zabalek hedatzen ari da, eta komunikazio, ekonomia, zientzia, akademia eta lan esparruetan ere kontuan hartzeko modukoa da. Horietan guztietan zabaldu behar dugu euskal nazioagintzarako bide estrategikoa. Nondik eta nola? Nazioagintza positiboa garatuz.

Euskal Herrian baditugu indarra, eza gutza eta kementa, horretara jartzen bagara. Gaur bertan gurean dugun mugimendu herritar aktibatua, mugimendu sindikal autozentratua, korrante euskaltzale berrindartua, badira nazioagintza positibo horretarako oinarri sendoak. Baina dimentsio politiko ideologikoa hartu behar dute. Eraginkor bihurtu. Nazio estrategia berritua hegemoniko egiteko moduan. Sinergia, elkarlana, bakoitza bere eremutik, baina bide berean kokatzea lortu behar dugu. Antolaketa eta boterea, herritarren eta euskal nazioaren helburu demokratikoen bidean aurrera egiteko. ●

Atera daitezela herriko plazara



KATIXA DOLHARE-ZALDUNBIDE
LITERATUR ZALEA

Ekain amaieran iragan da Banka eta Urepeleko eskola publiko uztartuetako urte hondarreko ikusgarria. Eskola gehienetan bezala, Bankako ama-eskolako irakasleak eta Urepeleko lehen mailako bi irakasleek, hirurek elkarrekin, urtero antolatzen dute haurren emanaldi nagusia: aitzinetik hautatzen dute gai bat, urte osoan lantzen dute berek edo kanpoko artista batekin, eta emaitza izaten da, usu, antzerki, kantu, poesia eta dantza lotzen dituen ikuskizuna, familien aitzinean. Banka eta Urepeleko eskolak eskola publikoak dira: ama-eskola euskarazko murgiltze sisteman da osoki sartua, baina lehen maila eredu elebidunekoa da. Halere, hiru irakasleak erroitik euskaldunak dira –horietarik bi Seaskan formatuak, gainera–, eta haur gehien-gehienak ere bai: harreman informalek euskaraz egiten dira heldu eta ikasleen artean, eta nehor ez da harrituko urte bukaerako agerraldia kasik osoki euskaraz iragaten baldin bada.

Aurten, bereziki, ikasleek aitama, aita-txi-amatxi eta haurrideak xoratu dituzte itzal-antzerkiarekin. Zurrunka Teatroko Eñaut Gorbea jin zitzairen bi astez, urtean zehar, txotxongilo antzerki mota bereziak ezagutaraztera. Ondotik, 43 haurrek eta hiru irakasleek, bi laguntzaileekin, landu dituzte ipuin klasikoak, euskaraz, eta

ordu eta erdiko ikusgarria prestatu dute: maskarak, txotxongiloak, dekoratuak, musika, argiak. Gozatu ahal izan dugu *Jack eta babarrun magikoa* maskaren itzal-antzerkia, *Hiru xerri ttipiak* eskuzko txotxongiloaren itzal-antzerkia, *Elur Xuri*, erretroproiektagailua lagun antolatutako txotxongiloaren itzal-antzerkia. Tartetik, rap moduan berridatzitako *Erpurutxo* eta *Loti Ederra* ere eskaini zizkiguten haurrek, berek moldatu frantsesezko bertsio kausitu batzuetan.

Ene ustez, aurtengo ikusgarria izan da literatura unibertsal klasikoa, lehen hezkuntzan, euskaraz frantsesez bezain sakon landu daitekeen demostrazioa. Ezen, ezagun zuen ikasleek barnatu zituztela istorioak, bai eta horien egitura narrati-boa, pertsonaien ezaugarriak, adieraziak diren emozioak, eta erabilia den erregistro jaso ere. Funtsezko lanketa literarioa nabari zen.

Are gehiago, ttipiek eta ertainek dantza garaikideak eskaini dituzte, antzerki zatien artean, lehena *Txanogorritxu* ipuinean oinarritua, eta bigarrena *Pinotxon*. Eta dantza horien bidez, ikusi da irakasleen gogoia ikasleengan interpretazio kritikoa sustatzeko: Txanogorritxuk aurre egin dio otsoari, Pinotxo bere buruaren jabe jarri da, baina aitarekin bakea eginez. Bistan dena, lehen hezkuntzan ez ditugu Bruno Bettelheim-en *The Uses of*



DOM CAMPISTRON

Enchantment ipuinen analisi psikoanalitikoak esplizitatuko. Haatik, bide pedagogiko bikainak erabil genitzake ipuinen irakaspen moralak aztertzen hasteko, manera gaurkotuan.

Duela zenbait urte entzun genuen militante feminista batzuek ekintzak egin zituztela Katalunian, ipuin klasiko “sexista” eta “toxikoak” liburutegietatik kentzeko. Iruditzen zait zentsura errebisionista bortitz hori baino eraginkorragoa dela gure ondare amankomuna den literatura manera sakon eta finez lantzea, ikasleen adinari egokitutako jardunen bidez, izpiritu kritikoaren eskakizun maila gora atxikiz.

Ez da ohikoa literatura, artea eta euskara hain argiki eta naturalki txirikordaturik atzematea eskola publiko elebidunekoa urte hondarreko ikusgarri batean. Adibide honek eredugarri beharko luke beste eskoletan. Bigarren hezkuntzan ere bai, funtsean, non literatura bazter gelditzen den euskara kurtsoetan, uztailearen 7 eta 8an UEUK Baionan eskainitako ikastaroak erakutsi duenez. Hala bazan ala ez bazan, literatura sar dadila “(h)errientsak” dauden ikastetxe guzietan! ●



IÑIGO MARTINEZ PEÑA
FILOSOFOA

Espektakuluen tranpa

Semea futbol talde batean jolasten da eta, kurtso amaieran jokaturako hamaika torneoren artean, *Athletic Cup*-era gonbidatu dute bere ekipoa aurten. Txapelketak laurhun talde eta 5.000 futbolari inguru batu ditu; haur eta nerabe, senideak eta lagunak kontatu gabe. Itzelezko muntaia! Futbolaren negozioa, finean, adin eta kategoria guztietara hedatu da; ez da talde profesionalek mugatzen. Nahiz eta, hori guztia, bizimodu neoliberal orokorrako baten joera baino ez den: bizitza osoa espektakulu eta negozioa izatera murrizteko dagoen joera.

Kontuak kontu, San Mamesen egin zen *Athletic Cup*-eko harrera. Eta talde guztiek futbol zelaiari buelta eman zioten, publikoa agurtzeko. Ikusleek (mugikorrei itsatsitako eskuekin) eszena une oro grabatu zuten, etenik gabeko musika jarrita aurkezle baten ahots “animotsuak” talde baikoitzaren izena oihukatzen zuen bitartean. Makro jai *espektakularra*.

Tamalez, ostiral batean izan zen eta, ostiraletan, auzoko lagunekin geratu ohi da semea. Pilota batekin ibiltzen dira jolasten, parking baten ondoko eta ikuslerik gabeko zelai txikian; glamourrik gabe. Egun horretan, ordea, ez zen auzoan geratu eta estadiora abiatu ginen. Baina, nire harri-durarako, ez zuen inolako pozik adierazi.

Are gehiago, irteterakoan argi eta garbi esan zuen izugarri aspertu zela. Eta, oro har, txapelketetako partiduak astunak egiten zaizkiola: estrategikoegiak, serioegiak, begiratuegiak. “Nahiago dut gurasoen eta entrenatzaileen begiradatik kanpo jolastu. Askoz hobeto pasatzen dugu auzoko lagun arteko partidutxoetan”.

Zer pentsa eman zidan: zertarako espektakulu hori guztia? Umeen zoriontasunerako, gurasoen entretenimendurako, negozioa egiteko...? Helburuak helburu, ondorioa asperdura izan zen, eta ez semearena bakarrik.

Bizitzan gauza aspergarriak egon badaude, noski, eta ez daukat ezer berezirik horren kontra. Zein da, orduan, arazoa? Aspertzen gabela konturatu gabe aspertze-ko eginda daudela espektakuluak. Horregatik, asperdura mota deserosoagoa da, arrotzagoa, horixe bera ezabatzea omen dutelako helburu. Are gehiago, ez baduzu disfrutatzen zure errua da: ez al dakizu ondo pasatzen muntaia erraldoi eta dibertigarri horretan? Agian umeak behar dira “erregea biluzik dagoela” zintzo esateko...

Hurrengo ostiralean, zorionez, auzoko zelaira bueltatu ginen eta espazio komunitario txiki horien garrantzia sentitu nuen. Ea ez diren guztiz disolbatzen espektakulu masiboen izenean... Bizitza, finean, espektakuluetatik kanpo gertatzen delako. ●



ARANTZA GUTIERREZ
EHU-KO IRAKASLEA

Nagusikeria

Berriz gertatu da. Bartzelonako Unibertsitateko ikerlari batzuek (emakumeak) salatu dituzte beren nagusiarengandik (gizona) jasan-dako sexu erasoak eta nagusikeria edo botere-gehiegikeria. Eta berriz ere, ospe handiko gizonaren aldeko adierazpena bultzatu dute, baita unibertsitate-foro publiko batean ere, argudiatuz ezin izan duela halako portaerarik izan, genero indarkeriaren aurkako hainbat lan argitaratu baititu; hori, berez, antidotoa balitz bezala. Tamalez, ez da lehenengo aldia halako portaerak gizon “aliatuengandik” gertatzen direla, eta dagoeneko konturatu gara hori ez dela abusuaen aurkako txertoa.

Hala ere, gustatuko litzaidake azpimarratzea badaudela esparru batzuk, non halako egoerak errazago gertatzen diren, eta horietako bat –eta tristetaz diot– unibertsitatea da. Indarkeria matxistaren aurkako protokoloak egiten ari diren arren –EHUkoa, esango nuke, onenetakoa dela–, oraindik ere menpeko harremanen gainean eraikitako egiturak daude, non zenbaitek baduten ia erabateko ahalmena karrera bat arrakastara edo porrotera eramateko. Beste esparruetan bezala, unibertsitatean bada ordua horretaz gogoeta egin eta arazoari aurre egiteko, abusua ez baita inoiz ordaindu beharreko bidesaria, eraso baizik. ●

Garikoitzen itzala



AINGERU EPALTZA
IDAZLEA

Herria astekariaren ez hain aspaldiko aleak irakurtzea aski da antzemateko Mixel Garikoitzek Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako gizarte nagusiki katolikoan utzitako arrastoaren sakonari.

Ibarreko Garakoitzeko semea, bertze ordezkariarik ez du Iparraldeak Erromako Elizaren sailnduen izendegian. Zerrenda mardul bereko Frantzisko Xabierkoarekin edo Inazio Loiolakoarekin ikusteko guti, ordea. Etorki noblerik ez odolean; laborari xumeen etxe batean munduratu zen Mixel, sei haurridetan lehena. Haren ondorea ere ez dago horienaren heinean. Bétharramitak urrun daude jesuitetatik, kopuruz eta ospez. Erlijio kontuetan ere ezin parean egon Pirinioek Euskal Herria bereizten dituzten bi aldeak.

Garikoitzek Bétharram herri gaskoia hautatu zuen, Bearnoren eta Bigorraren arteko mugan, bere Loiola apala paratzeko. Hura hil ondoan, bertze euskaldun batek, Auguste Etxekopar donapaleutarrak, hartuko zuen hark sortu ordenaren gidaritza. Horrek are gehiago sendotuko zuen Iparraldeko jendeak ibartarraren itzalari izan dion atxikimendua.

Ezin harritu Bétharramgo Notre-Dame barnetegiak Iparraldeko aita-amen artean izan duen arrakastaz. Igande arratsalde guztietan neska-mutilez beteriko autobusa abiatzen zen

Jean-Baptiste Etxeberri euskal idazleak Michel Garikoitz sailnduaren bizia eta bertuteak argitaratu zituen 1962an. Junes Casenavek, berriz, *San Mixel garikoitz* pastoralara plazaratu zuen 1994an Donaixti-Ibarren, sailnduaren sorlekuan. Haren izena du Kanboko (Lapurdi) elizak, Donapaleuko (Nafarroa Beherea) Errecart laborantza ikasketen lizeoari loturiko ikastetxeak eta Domintxineko (Zuberoa)

eskolak ere. Maiatz guztietan erromesaldi jendetsua egin izan da haren sortetxera, Ibarren, inguruko eta are urrunagoko herri euskaldun guztietatik.


Ezin harritu, beraz, Bétharramgo Notre-Dame barnetegiak Iparraldeko aita-amen artean izan duen arrakastaz. Igande arratsalde guztietan neska-mutilez beteriko autobusa abiatzen zen Donibane Lohizunetik Bearnoko herriraino, Miarriritzen eta Baionan geldialdiak eginda. Ortziralean, kontrako bidaia.

Euskal Herriko ikasle horietarik dira, bertze toki batzuetakoekin batera, Frantziako justizian aurkeztu diren ehun salaketa baino gehiagoren egileak. Eraso fisiko eta sexualak eguneroko ogia, nonbait, Bétharramgo ikastetxean. “Depredatzaileendako supermerkatua”, lekuko batek horrela deskribatu du hango egoera. Auzia ez da bart arratsean piztu; lehen salatuetariko batek, Pierre Silviet-Carricart apez muskildiarak, 2000n egin zuen bere buruaz bertze. Alabaina, orain ari da zalaparta eragiten Frantziako gizartean eta politikan, François Bayrou lehen ministroa zipriztintzeraino. Iparralde tradizionalaren sukaldeetan, lurrikara bat, ikusirik lokatzean Garikoitzen itzala. ●

Erraldioen ipuinak




12€




12€

Bi liburuak
batera erosita
22€

Hezkuntzaz gogoetak



14€



16€

Bi liburuak
batera erosita
28€

Erosten duzun produktu bakoitzarekin,
ekarpen ekonomikoa egiten diozu Mbolo
Moye Doole elkarteari. Batez ere Senegaldik
etorritako migratzailez osatutako
Bilboko kale-saltzaileen elkarte da Mbolo.

Kamiseta **17 €**

Poltsa **14 €**

Bidalketa gastuak **5€**.
Bidalketa doan **40€**-tik gorako erosketetan.

azoka.argia.eus

(+34) **943 37 15 45**

Suizidioa

Errespetutik eta epaitu gabe

Suizidioagatiko dolua humanizatzen lagun dezaketen elementuak aztertu eta prebentziorako neurriak azaldu dituzte *Suizidioaren humanizazioa* ikastaroan, Biziraun elkarteak antolatuta. Osasun arloko profesionalek, suizidioak eragindako heriotza baten bizirauleek eta suizidio saiakera batetik bizirik atera direnek hartu dute parte, besteak beste. Nabarmendu dute errespetuz eta epaitu gabe entzuna sentitzeak eta hitz egiteak doluan laguntzen duela.

 **OLAIA L. GARAIALDE**

 **DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA**

Biziraileen testuinguruan, suizidioaren humanizazioak zendu den pertsona zein atzean gertatzen direnak epaitu eta estigmatizatu beharrean, bilatzen duena da ulertzea, akonpainatzea eta duintzea”. Eva Bilbao Garmendiarenak dira hitzak. Osakidetzako erizaina da eta Biziraun elkartearen presidentea. Maite duten norbaiten suizidioak mindutako pertsonen elkarte da Biziraun. Beste gauza askoren artean, urtero Euskal Herriko Unibertsitateko Udako Ikastaroetan suizidioari tarte bat eskaintzen diote. Ekainaren 26tik 27ra Donostiako Miramar Jauregian izan dira *Suizidioaren humanizazioa* ikastaroa antolatzen.

Bilbaok eta Agustin Erkizia Olaizolak 2016an sortu zuten elkarte, euren seme Joseba 2013an suizidioagatik hil ostean. Tabua, estigma, isiltasuna, deserosotasu-



na, eta beste sentipen asko sortzen ditu suizidioak gizartearen. Horren kontra jarduten dute Bilbaok eta Erkiziak. Haien ustez, hitz egitea suizidioa prebenitzeko tresna bat da. Betiere “errespetuz”, “duintasunez” eta “enpatiaz”. Bilbaoren arabera, humanizazioz jokatzekoa dolua “erraztu” dezake.

Horretarako, tresna baliagarri bat laguntza taldeak izan daitezkeela diote. Suizidioak eragindako heriotza baten bizirauleez eta psikologoez osaturiko taldeak dira. Bilbaoren eta Erkiziaren semea zendu zenean, Euskal Herrian ez zuten

laguntza talderik aurkitu, Madrilera jo zuten. Bertan ezagutu zuten Antonia Jimenez Gonzalez psikologo klinikoa eta RedAIPI-Seko idazkari nagusia. “Laguntza talde horiek argi izpi bat izan ziren”, adierazi du Bilbaok. Suizidioan adituak ziren psikologoei gidatuta, beste senideekin mintzatzeko aukera izan zuten.

Jimenezek ere dolua gizatiartzearen garrantzia azpimarratu du. Gaineratu du askotan besteen lekuan jartzea kosta egiten dela: “Oso zaila da suizidioagatik gainera bat izan duen norbaiten lekuan jartzea.

Ez duzu nahi, eta ezin duzu larritasunak gainditzeko zaituelako. Orduan nahiago duzu, beste edozein tresna erabili, entretenimendua, kasu, bere lekuan jarri baino”. Gaineratu du beste dolu batzuekin alderatuta, bestelako faktoreak hartu behar direla kontuan: “Humanizazioz jokatzeko abiapuntu bat izan daiteke ulertzea dolua desberdina dela”.

Suizidioak eragindako heriotza “bat-batekoa”, “ustekabekoa” eta “esplikaiezina” dela dio Jimenezek. Horrek bizirauleei galdera ugari eragiten dizkie: “Hasieran batez ere oso prozesu latza da, joan den pertsonak eman ezin dizkizun erantzun asko behar dituzulako”. Prozesu hori arintzeko zenbait gako eman ditu; adibidez, egin behar ez diren iruzkinak: “‘Oso neska normala ematen zuen’ eta ‘Zer gertatzen zen harreman horretan hori egiteko?’ gisako esaldiek estigmatizatu besterik ez dute egiten”. Horrek dolu prozesuan eragin zuzena izan dezake: “Batzuek lotsa sentitzen dute estigmatizazioagatik eta ez dutelako epaituak izan nahi. Horren ondorioz, jendeak gertatutakoa ezkutatu dezake eta mina eta ezinegona handitu”.

Horrez gain, emozio asko azaleratu daitezke, tartean, errua eta haserrea. Ohartarazi du garrantzitsua dela emozioak ateratzea eta lantzea. Haserrea batzuetan norberaren kontra izan daiteke edota zendu den pertsonaren kontra. “Behin emaitza jakinda iragana aztertu eta egun ditudan tresnekin zer gertatzen zen jakin dezaket. Baina ezin dut neure burua zigortu eta epaitu orain dakidanagatik”, azaldu du, erru sentimenduari lotura.

Horrelako heriotza bat “inpaktu traumatikoa” da. Horregatik azaldu du beharrezkoa dela lehenengo momentutik zendu den pertsona maite dutenak “modu osasuntsuan” artatzea: “Beti ez da hori gertatzen”. Horregatik, “nahitaezkoa” da larrialdietako langileak prestatzea. Horrelako kasuetan jarduten duten larrialdietako profesionalak begirunez aritzeko zenbait zertzelada eman ditu. Adibidez, senideen emozioak baliozkotzat jotzea, baliozaren prozesua errespetatzea eta ahal den neurrian zendu den pertsona ikusteko aukera eskaintzea.

Ezker-eskuin: Joanes Erkizia (bere anaia suizidioagatik hil zen); Iratxe Etxenike (bere aita suizidioagatik hil zen); Agustin Erkizia (bere semea suizidioagatik hil zen); eta Aroa Colas (depresioa jasan zuen). Laura de la Iglesiak (suizidio saiakera bat izan zuen) bideo-konferentzia bidez hartu zuen parte, hurrengo orriko argazkian ikus daitekeenez.



Emozioak balioztatzea zertan datzan hobeto ulertzeko, RedAIPIS elkartera jo zuen familia baten esperientzia plazaratu du. Amak kontatu zion medikuak semearekin zeuden bitartean, psikologoak berarekin eta alabekin izandako jarrera “oso mingarria” izan zela: “Psikologoak, intentzio onez, negar egin behar zutela esaten zien. Amak ez zuen ulertzen, *shock* egoeran zegoelako, eta oraindik ez zuelako onartzen semea hilik zegoela. Esan zidan: ‘Nola egin behar nuen negar nire semea artatzen ari baziren?’”. Horri lotuta, uste du egoera horretan psikologoaren jarduna ondoan egotea dela eta ez esku-hartze terapeutiko bat egitea.

Heriotza bat-batekoa denez, zendu den pertsona ikusteko aukera eskaintzeak ere lagundu dezake doluan: “Poliziak ez badizu pasatzen uzten, oso mingarria izan daiteke, agurtu gabe geratzen zarelako. Prestatuta dagoen psikologo bat badago, Poliziarekin negoziatu dezake behintzat eskua ikusi eta eman ahal izateko”.

Entzuna sentitzea garrantzi handikoa denez, larrialdian arreta eskaintzen duen psikologoak bere telefonoa eskaini dezake lehenengo egunetan zerbait behar izanez gero deitzeko. Horretaz aparte, Bilbaok eta Jimenezek uste dute lehen mailako arreta “gakoa” dela horretarako. Nabarmendu

“Nireganako mina kudeatu ostean, errua sentitzen hasi nintzen familian eragiten ari nintzen minagatik”

“Orain ez daukat bizitzeko beldurrik, eta uste dut horrek lasaitasuna ematen diela ingurukoei”

Laura de la Iglesia

dute erizainak eta familia medikuak entzunak sentitzeko atea izan daitezkeela.

SUIZIDIOA ETA OSASUN MENTALA PAREZ PARE

Doluan akonpainatzeko gomendio batzuk emateaz gain, suizidioaz eta osasun mentalaz lehenengo pertsonan hitz egiteko espazioa ere izan da ikastaroa. Hitz hauekin deskribatu du suizidioren osteko dolua Iratxe Etxenike Sarrateak: “Itzulera duen

bidaia ez dio erreferentzia egiten soilik itzultzen zaren bidaia horri. Itzulera duen bidaia bat da abiatzen duzun bidaia bat, jakin gabe etxera itzuliko zaren eta pertsona bera izango zaren. Ziurrenik soinean daramazun maleta bera da, baina barruan dagoena ez. Agian desberdin antolatuta dago, agian zerbait falta da, agian hautsita dagoen zerbait dago, agian zerbait berria dago. Guk eskatu ez dugun bidaia bat da, ez genion bidaiari ekin nahi, baina *check-in* egin behar izan dugu egokitu zaigulako. Eman diezaigun maletari bidaia berri bati ekiteko aukera. Soilik beharrezkoak diren gauzekin kargatu dadila eta ez dezala gehiegizko zama hartu. Amesgaiztoz bete beharrean, ametez bete dadila”.

Psikologia ikasi du Etxenikek eta, gaur egun, Agifes elkartearen lan egiten du eta Biziraun elkarteko laguntza taldeetako koordinatzailea da. Bere aita suizidioagatik hil zen 2020an. Joanes Erkizia Bilbaorekin, Aroa Colas Fariñarekin eta Laura de la Iglesia Sanchezekin batera gertuko begirada gazte bat eskaini nahi izan die suizidioari eta osasun mentalari. 25 urte dituzte denek, Colasek izan ezik. 19 urte ditu Colasek. Agustin Erkizia Olaizolak gipatu du solasaldia.

Bi galderatatik tiraka, suizidioarekin duten harremana eta gaur egun zer moduz



dauden kontatu dute. De la Iglesia farmazia teknikaria da. Duela 11 urte inguru suizidio saiakera bat izan zuen. Nabarmendu du egun “ondo” dagoela eta “lasai” sentitzen dela: “Ez dakit zoriontsu naizen edo ez, eta uste dut ez dudala inoiz jakingo. Uste dut pertsona bakoitzarentzat desberdina dela. Niretzat zoriontasuna bake mentala edukitzea da. Urte luzez lortu nahi izan dudana gauza da, eta orain bake mentala sentitzen dut. Egun onak eta txarrak daude, baina ez daukat zaratarik buruan eta ez ditut gauzak gainpentsatzen”.

Colasek ere lasaitasuna azpimarraztu du. Integrazio soziala ikasten ari da. 2020ko itxialdiaren ostean antsietatea sentitu zuen, eta horrek depresiora eraman zuen: “Horrek eta beste faktore batzuek autolesioak egitera eraman ninduten”. Orain, ondo sentitzen dela dio: “Egun batetik bestera hasi nintzen hobeto sentitzen. Konturatu nintzen, lehen ez bezala, asteko egun guztiak ez zirela txarrak. Ondo nago lasaitasuna sentitzen dudalako, lehen ezin nuen, buruko etengabeko zarak ez ninduen lorik egiten uzten”.

Erkiziak, 2013an, anaia Joseba galdu zuen suizidioagatik. Biziraun elkarteko sare sozialak kudeatzen ditu, eta sukaldaria da. Gastronomiak “asko” laguntzen dio doluan: “Hazkunde pertsonaleko une

“Hasieran batez ere oso prozesu latza da, joan den pertsonak eman ezin dizkizun erantzun asko behar dituzulako”

Antonia Jimenez

“Orain, anaiarekin oroitzen naizenean, eskertuta sentitzen naiz berarekin hamahiru urtez bizi izateagatik”

Joanes Erkizia

batean nago. Horrez gain, orain tresna gehiago ditut identifikatzeko noiz ez nagoen horren ondo eta zein baliabidek laguntzen nauten”.

Etxenikek sentitzen du saltsa askotan sartu dela azken urteetan eta ate asko dituela zabalik. Kontent dago hartzen ari

den erabakiekin: “Sentitzen dut nik nahi dudana bidea egiten ari naizela, eta horrek lasaitasuna ematen dit”. Hiru ziren etxean: ama, aita eta bera. Kontatu du aita zendu izanak eragindako falta edo gabezia izan dela gehien kostatu zaiona kudeatzen: “Aita galtzearekin batera isiltasuna entzuten hasi nintzen”. Horrez gain, suizidioagatik maite duten norbait galtzen duten pertsona batzuek haserre edo amorrua sentitzen dute hil den pertsonarekiko: “Momentu batzuetan haserre sentitzen nuen, abandonu modukoa, bera zelako zaindu behar ninduen. Nola kudeatzen duzu pertsona bati esan nahi diozun guztia, pertsona hori ez badago?”.

Haserrearekin ere konektatzen zuen Colasek, baina beste leku batetik. Izan ere, hasieran tristura zena haserrearekin nahasten hasi zen: “Mundu guztiarekin haserre nengoen, eta denak gorroto nituen, nire bizitza barne”. Behin pertsona batek galdetu zion ea benetan haserre zegoen ala triste. Orduan, konturatu zen tristura zela sentitzen zuena: “Oso sentibera naiz eta intentsitate handiz maite eta sufritzen dut. Nire inguruan beti epaitu izan dute tristura, beraz, haserre zegoen Aroa baten azalean babestu nintzen”. Iruditzen zaio orokorrean gizartearen haserrearen leku handiago duela.



Erkiziaren kasuan, anaia hil zenean 13 urte zituen, eta artean tresna gutxi zituenez emozioak kudeatzeko. Gehien kostatu zaiona izan da ulertzea bere bizitzako gainerako urteetan ez dela anaia egongo. Hala ere, nabarmendu du etxean jasotako babesak eta urtez urte egindako lanketak –terapiak tarteko– lagundu egin diotela: “Orain, anaiarekin oroitzen naizenean, eskertuta sentitzen naiz berarekin hamahiru urtez bizi izateagatik”.

Errua nagusitu da gehienbat De la Igleziaren kasuan. Azaldu du orokorrean beti kostatu zaiola emozioak kudeatzea, baina gaur egun terapiaren laguntzaz hobeto daramala: “Nireganako mina kudeatu ostean, errua sentitzen hasi nintzen familian eragiten ari nintzen minagatik. Zaila izan da ulertzea nik berez ez niela minik eman nahi”. Familia berriro mintzearen beldur ere izan da: “Orain ez daukat bizitzeko beldurrik, eta uste dut horrek lasaitasuna ematen diela”. Suizidioaren osteko dolua bizi duten pertsonen testigantzak entzutea eta gaiaz hitz egiteak lagundu egin dio eta “askatzailea” izatera iritsi da.

SOLASTATZEA, PREBENTZIORAKO TRESNA

Suizidioaz mintzatzea, errespetutik, begirunez, epaitu gabe eta bakoitzaren

“Oso gaizki nagoenean, erortzen utzi beharrean, norbaiti deitu eta laguntza eskatzen dut. Ez dut pentsatzen deitzeagatik enbarazu egingo dudarik”

Aroa Colas

“Momentu batzuetan haserrea sentitzen nuen, abandonu modukoa, bera zelako zaindu behar ninduen”

Iratxe Etxenike

erritmoak errespetatuz. Horiek dira lau hizlariarentzat gako edo estrategia garrantzitsuak, aipaturiko emozio andana ku-

deatzeko. Denek nabarmendu dute hitz egiteak eta entzunak sentitzeak lagundu egin diela. Colasek hasieran asko idazten zuen, baina denborarekin ikusi zuen sentitzen zuenaz solas egiteko beharra ere bazuela: “Ez dut nahi zu gaizki sentitzea ez dakizulako niri zer esan; nik soilik behar dut, bost minutuz bada ere, begietara begiratzea eta benetan entzutea”.

Ikastaroan zenbait tresna eman dituzte jakiteko nola jokatu norbaitek suizidioan pentsatzen duela sumatu edo esanez gero. Batez ere nerabeetan zentratu da Jimenez psikologoa, eta nabarmendu duenez, garrantzitsua da arretaz entzutea, galdetzea, ez epaitzea, ez desafiatzea eta argi uztea ezin diozula konfidentzialtasuna gorde. “Azaldu behar diozu beste gauza batzuetan konfidentzialtasuna bermatuko duzula, baina kasu honetan ezin duzula, zure lehentasuna laguntzea delako. Eta hortaz, gurasoekin, adituekin eta besterekin hitz egiten lagunduko diozula”.

Hori dena gestionatu bitartean deus ez egiteko edo berriz ez saiatzeko konpromisoa eskatu dakioke. Horretarako, suhesi-txartelak erabili daitezke. Dokumentu bat da zeinetan suizidioan pentsatzen duen pertsonak, arrisku egoeran dagoenean, burutik pasatzen zaizkion lau

edo bost ideia jarri behar dituen. Hala, krisi egoera batean dagoela uste badu, txartela begiratu eta horietakoren batean pentsatzen ari bada txartelean agertzen den lehenengo telefono zenbakira deitzeko konpromisoa hartu behar du. Pertsona horrek ez badio telefona hartzen, hurrengoari deitu behar dio, eta bestela hurrengoari, eta horrela norbaitek hartu arte. Colasen eta De la Igesiaren ustez, horrelako baliabideak lagungarriak dira.

Norbere prozesutik ateratako gauza positiboak ere taularatu dituzte. Horien artean komunitatea gailendu da. Denek nabarmendu dute elkar ezagutu izanaren garrantzia. "Sentsazio gazi-gozo bat da. Oso tristea eta garrantzitsua iruditzen zait tunel honetatik pasa behar izana elkar ezagutzeko. Hala ere, alderdi positibo bat iruditzen zait", aitortu du Etxenikek. Colasentzat ez da soilik positiboa ezagutu duen jendea, baita atzean utzi duena ere: "Orain hobeto ezagutzen dut neure burua". Erkiziak Biziraun elkarteak egindako lana txalotu du: "Oso polita iruditzen zait besteei laguntzeko egiten den lana".

Sare horrek egunik zailenetan indarra eman diela aitortu, eta beste tresna lagungarriak aipatu dituzte. Colasen kasuan, bere txakurra aliatu eta lagun nagusia izan da: "Etxetik ateratzera eta paseatzera behartzen ninduen. Uste nuen txakurra hil ostean ezingo nuela jarraitu, baina orain bizitzeko gogoia daukat". Gaineratu du etorkizunean pentsatzeak ere indarra ematen diola: "Jendeari babesa eskaini eta lagundu nahi diot". Gorputzaren beharrak



entzuten, identifikatzen eta errespetatzen saiatzen da, eta egun txarra duela identifikatzen duenean musika entzun eta paseatzera doa: "Oso gaizki nagoenean, erortzen utzi beharrean, norbaiti deitu eta laguntza eskatzen dut. Ez dut pentsatzen deitzeagatik enbarazu egingo dudarik; maite zaituena ondoan egongo da".

Erkiziarentzat ere lagungarria da hondartzatik paseatzera, musika entzunez: "Arazoak uxatzen dira". Horrez gain, pasiotik eta ilusiotik mintzo da sukaldaritzaz: "Maila profesionalean oso erronka politak atera zaizkit, eta oso pozik nago

gauza desberdinak egiteagatik". Izan ere, ibilbide profesionalean arreta jartzeak bultzada eman dio. Gurasoekin duen harremana "indartu" izanaz ere harro dago.

Etxenikek sentitzen du sortzez "alaia" eta "aurrera tiratze-koa" izateak lagundu egiten diola: "Niretzat garrantzitsua da gertatu dena ez izatea deusetarako, eta ekarpenik egin ahal badezaket egitea". Familia ere motor bat da; ama "izugarritzko oinarria" da: "Amak esaten zidan ni ondo bannengoen bera ondo egonen zela. Kontuz ibili behar gara horrela-koekin, baina bere alde positiboa ere badauka, aurrera egiteko indarra ematen dit. Niregatik, amarengatik, eta aitari ere ilusioa egingo liokeelako".

Benetan gustuko dituen eta ilusio egiten dioten gauzak egiten hasi da De la Iglesia. Adibidez, urpean igeri egiten. "Ikusi dut bizitza oso laburra dela, eta horrek batzuetan beldurra ematen didan arren, bizitzan ditudan gauza on guztietan pentsatzen dut", kontatu du.

Batzuetan, horretaz jabetzea kostatzen zaionean, "oso gaizki" dagoelako, laguntza eskatzen du maite duen jendea gogorarazi diezaioten.

Azkenik, Imanol Pradales Eusko Jaurlaritzako lehendakariari zenbait eskakizun egin dizkiote: osasun mentalean inbertitzea, psikologia eta osasun mentala hezkuntza akademikoan txertatzea, emozioez hitz egitearen garrantzia azpimarratzea, erakundeek sustatzea suizidioaz hitz egiteko esku-hartzeak, eta osasun sistema publikoaren kolapsoaren kontrako neurriak hartzea. ●

Osasun-langileak falta dira, ala borondate politikoa?

Azkenaldian osasun publikoaren egoera kaxkarra justifikatzeko erakunde publikoek gero eta sarriago aipatzen dute mediku eta espezialisten premia dagoela. Ez omen dago eskaria asetzeko nahikoa langilerik. Eusko Jaurlaritzak ardura osoa Espainiako Osasun Ministerioari egozten dio, baina, zenbateraino ditu eskuak lotuta?

 JONE GARTZIA GERRA  JON URBE / FOKU

Medikuak falta dira: zenbatetan ez dugu argudio hori entzun osasun sistema publikoaren egoera justifikatzeko. Behin eta berriro entzun dugu Alberto Martínez EAEko Osasun sailburua Osakidetza duen arazo larriena mediku falta dela esaten eta konpontzeko Jaurlaritzaren esku dagoen guztia egiten ari direla ziurtatzen, baina eskumena osoki Espainiako Osasun Ministerioak duela eta Lakuak gehiagorik ezin duela egin.

Azkenaldian Osasun sailburuak proposatu dituen neurrien artean badira batzuk arreta emateko modukoak, hala nola borondatezko erretiro adina 72 urtera atzeratzea, lanpostu espezializatuen kopurua handitzea, atzerriko tituluak homologatzea, medikuntza graduak laugarren urteko ikasleek Lehen Arretan lan egiteko bidea erraztea, familia medikuen formazioa hiru urtera murriztea eta Larrialdi eta Emergentsietako espezialitateko epeak laburtzea.

Badira osasun-langileei eman behariko litzazkiekeen pizgarrien inguruko proposamenak ere, eta horrek zalantza pizten du, errealitatea benetan zein den: ez dago prestaturiko langilerik ala ez dago Osakidetza eskaintzen dituen baldintzetan lan egiteko prest dagoen profesionalik? Lakuako Osasun sailburuak

mahai gainean jarritako pizgarrien artean daude osasun-langileei etxebizitzarako sarbidea erraztea, lantokira joateko behar duten denbora lanorduen barruan sartzea, eta Lan Eskaintza Publikoetako merituen parte bihurtzea betetzen zailak diren postuak –esaterako, arratsaldeko txandak–.

Osasun-langileak falta dira sare publikoan, baina arazoa ez da inondik inora atzo gauekoa. Badira urteak mediku espezialisten eskasia mahai gainean dagoela, eta antza, Osakidetza ez du mugimendurik egin aterabide errealean bila. 2009an EAEko Osasun sailburu zen Rafael Bengoak ohartarazi zuen espezialistak falta zirela Pediatrian, Lehen Mailako Arretan eta Erradiologian, haren esanetan, “osasun-sistema gehiegi erabiltzeagatik eskaera handitu” omen zelako.

Sindikatuak, plataforma herritarrek eta osasun publikoaren aldeko eragileak aspaldi ari dira arreta publikoa kalte-tzen duen egoerari aterabidea exijitzen, eta sentsazioa dute Jaurlaritza aitzakiatan dabilela eskumenaren kontuarekin, dioena baino gehiago egin dezakeela uste baitute. Zenbateraino ditu Jaurlaritzak eskuak lotuta? Arazoa hain larria bada, zergatik ez du Euskadiko Osasun Itunaren Diagnostikoan gaiaren inguruan fitsik ere aipatu?

“DIAGNOSTIKO FALTSUTUAREKIN ERANTZUKIZUNIK EZ”

Eusko Jaurlaritzaren Osasun Itunak auziaren inguruko “diagnostiko faltsu” bat aurkeztu duela salatu dute hainbat sindikatuk eta osasun publikoaren aldeko plataforma herritarrek. 2024ko urrian aurkeztutako Euskadiko Osasun Itunaren diagnostikoan Osakidetza dituen arazo nagusiei iskin egiten zaiela eta autokritika zantzurik ez dagoela azpimarratu dute hainbat eragilek.

Hala, salatu dute errealitatea islatzen ez duen diagnostikoak aurrekarien inguruko baldintza faltsuak ezartzen dituela eta eztabaida mugatzen duela. Are, autokritikarik eza erabatekoa dela azpimarratu dute, 1984an erakundea sortu zenetik kudeatu duen alderdiak egoeraren erantzukizunik batere izango ez balu bezala. Diagnostikoan ez da azaltzen zergatik egin duen gainezka sistema publikoak edo zergatik ezin den kalitatezko arretarik eskaini eta, egoeraren zergatiak aztertutik ezean, ezinezkoa da errora jotzea.

Errealitatea ezkutatu, eztabaida desbideratu eta fokua beste puntu batean jartzen ahalegindu dela kritikatu dute, bi helburu nagusirekin. Batetik, jendar-tearen pertzepzioan eragin nahi izan duela salatu dute, jendar-tea arazoaren parte bezala aurkezteko, eta ez biktima



Osakidetzaren egoera salatzen langileen kontzentrazioa.

bezala. Bestetik, mediku gabeziaren inguruko aipamenik egin gabe, Jaurilaritza ardura sailhesten ahalegindu dela kritikatut dute, erantzukizuna gainetik kentzeko asmotan.

KUDEAKETA NEOLIBERALAREN MUGA SISTEMIKOAK

Osasun Publikoaren Aldeko Plataformen Koordinakundeak salatu du kudeaketa eredu neoliberala alde batera utzi ezearnekez konponduko dela afera. Egungo sistema publikoak pribatuarekin duen harreman estuak, arreta espezializatua-ren prekarizazioak eta pribatizazioak, ez dute bide horretan laguntzen.

ELA sindikatuaren Manu Robles-Arangiz Fundazioak 2024ko azaroan argitaratutako 54. azterketaren arabera, Jaurilaritzaren Osasun Sailaren 2025eko aurrekontuaren igoera "negargarria" da: soilik %0,35 aurreko urtearekin alderatuta, eta BPGrekin alderatuta osasun

gastua azken bost urteetako txikiena izango da, %5,05ekoa. Europar Batasuneko beste herrialdeekin alderatuta, bai EAE eta baita Nafarroa ere oso urrun daude batez besteko gastuari, langile sanitario kopuruari eta funtzionamenduan dauden ohe kopuruari dagokionez.

Sare publikorako aurrekontua gero eta murriztagoa den bitartean, kontrakoa gertatzen da pribatura bideratutako baliabide ekonomikoekin: "[Jaurilaritza] 2023an zerbitzuak azpikontratatu eta pribatizatze 269 milioi euro jarri zituen, hots, aurreko urtean baino %9 gehiago". Gainera, itxaron zerrenda luzeen ondorioz, ordain dezaketenak kontsulta pribatuetara bultzatzen dituzte, eta sare pribatua egoera horretaz baliatzen da: "Deribazio eta itunei esker, osasun sistema publikoek pazienteak bidaltzen dituzte osasungintza pribatura, itxaron zerrendak areago puztu ez daitezten".

LANGILEEN LAN BALDINTZAK AZALERA

Ez Osasun Itunaren diagnostikoak, ez Osakidetzaren urteroko memoriek ez dute langileen egoeraren inguruko datu zehatzik ematen, baina sindikatuak kexu dira, lantaldeak "zeharo prekarizatuta" daudela. Manu Robles-Arangiz txostenaren arabera, Osakidetzako lantaldeen %14,6k lanaldi partziala du eta langileen erdiak baino gehiagok aldi baterako kontratua, Osasun Itunak azken datu hori %37an kokatu arren. Okupatzaile-rik gabeko 2.759 plazak kenduta behin-behinekotasun tasa %54koa da, Europako zuzentarauak ezartzen duen %8ko helburutik oso urrun. Gainera, martxan dauden Lan Eskaintza Publikoak (2020, 2021, 2022 eta Egonkortzea) atzerapenarekin doazenez, erretiroagatik 2.000 lanpostu inguru hutsik egongo dira, eta behin-behinekotasun tasak %40tik gorakoa izaten jarraituko du Osakidetzan,

%50etik gorakoa Osasunbidean.

Horrez gain, Manu Robles-Arangizek salatzen du langile publikoek azken hamabost urteetan erosahaltenaren ia %20 galdu dutela, soldata galera hori konpentsatzeko Osakidetza aparteko orduak edo auto-kontzertazioa areagotu dituela, horrekin batera lan-kargak eta arrisku psikosozialak handitu direla, eta langileen zati handi batek ez duela urteko lan egutegirik. Lan-karga handitzen duen beste faktore bat ere bada lan burokratikoaren igoera, batez ere Lehen Arretan.

Lan-baldintza kaxkarrekin, osasun-langile askok beste erkidego edo herrialde batzuetara joatea erabakitzen dute, edo sare pribatuan aritzea lehenesten dute. Izan ere, mediku askok sare publikoan ez ezik kontsulta pribatuan ere egiten dute lan, eta erakunde publikorki joera hori sustatu du eskusibotasun pizgarria kenduz edota egoera kontrolatzeari uko eginez. Esaterako, Osakidetza 1.059 sendagileri aitortu zaie bi sistemetako lana bateragarri izatea.

MUGAK BAI, BAINA AUKERAK ERE BAI

Berez, ez dago Eusko Jaurlaritzari behar dituen medikuak kontratatzea eragozten dion legerik, bai, ordea, Osakidetza osasun-langileak kontratatzea zailtzen duten legeak eta egiturazko zenbait muga. Horien artean daude enplegu publikoari buruzko Espainiako Estatuaren araudiak ezarritakoak, langile espezializatuen eskasia, aurrekontu murrizketak eta gastu politika kontserbadoreak. Azter ditzagun sakonean.

Espainiako Estatuak enplegu publikoaren arloan ezartzen duen legediaren mende dago Eusko Jaurlaritza, eta orain gutxi arte Estatuak Aurrekontu Orokorren legeak muga bat ezartzen zuten osasun-langileen kontratazioan. Horrek plantillak nabarmen handitzea eragozten zuen. Azken urteetan legeria malgutu bada ere, oraindik ere kontuan hartu beharreko faktore da.

Bestalde, Lan Eskaintza Publikoak (LEP) dira lanpostu finkodun osasun-langileak kontratatzeke tresna nagusia, baina prozesu luze eta burokratikoak direnez, nabarmen atzeratzen da profesionalen kontratazioa. Gainera, aldi bateko kontratuen gehiegizko erabileraren ondorioz, administrazioak hainbat plaza egonkortu behar izan ditu. Nolanahi ere, prozesuak geldoa izaten jarraitzen du eta ez du beti bermatu langile-beharrak arin asetzea.

Jaurlaritzak egin dezakeena? LEPak bizkortzea eta sinplifikatzea, behin-behinekotasuna eta lan-karga murriztea, egonkortasun-prozesu zehatzak diseinatzea lanpostu hutsak azkarrago betetzeko, eskusibotasuna ezartzea...

Mediku faltaren krisia ez da kasualitatea, urteetako desinbertsioaren, kudeaketa neoliberalaren eta ardura politiko ezaren emaitza baizik

Horien aurrean, zer egin dezake Eusko Jaurlaritzak? Hainbat dira mugen barnean dituen jokorako aukerak: LEPak bizkortzea eta sinplifikatzea, lan-eskaintza publikoko deialdietan gardentasuna eta segurtasuna bermatzea, behin-behinekotasuna eta lan-karga murriztea, egonkortasun-prozesu zehatzak diseinatzea lanpostu hutsak azkarrago betetzeko, eskusibotasuna ezartzea...

LANGILERIK EZ, BAINA AURREKONTURIK ERE EZ

Auzi honetan Osakidetza aurki dezakeen beste arazoetako bat da lan merkatuan osasun-langile nahikorik ez izatea. Lakuako azken bi Osasun sailburuek nekatzeraino azpimarratu dute egoera estatu osoan zabaldua dagoela eta ardura Espainiako Osasun Ministerioarena dela. Barneko Mediku Egoiliarren preskakuntzan planifikaziorik ezak zenbait espezializaziotan mediku defizita eragin du, eta lan baldintza gero eta okerragoak direla-eta, osasun-langile askok nahiago dute sektore pribatuan edo beste erkidego zein herrialdeetan lan egin.

Horrez gain, aurrekontu-mugek ere eragina dute langile gehiago kontratatzearen auzian. Medikuek kontratatzea eragozten duen legerik ez dagoen arren, Eusko Jaurlaritzak gastu publikoaren mugak eta aurrekontuen iraunkortasuna errespetatu behar ditu, eta horrek kontratazioaren gaineko erabakietan eragina izan dezake. Kasu batzuetan, langile gehiago kontratatzea beharrean, zerbitzuak enpresa pribatuera kanporatzea erabakitzen da, eta horrek osasun publikoko lan-prekarizazioa larriagotzen du.

Inoiz ere entzun izan dugu hizkuntza-eskakizunak muga izan daitezkeela profesionalak aurkitzerako orduan, profila betetzen duten hautagai nahikorik egon ezean, baina, Manu Robles-Arangiz fundazioaren txostenaren arabera, "oro har hizkuntza-eskakizunik ez zaie ezarri ospitaleko medikuei" eta "hizkuntza-eskakizunak betetzen dituzten langile batzuk ez dira pazienteak euskaraz artatzeko gauza". Gainera, egun EHUK gaztelaniazko plaza gehiago eskaintzen ditu Medikuntzako Graduan euskarazkoak baino, azken hauek beti betetzen diren arren. 2025-2026 ikasturterako euskarazko 40 plaza gehiago eskainiko dituztela adostu zuten Osasun Sailak eta EHUK 2024ko urte amaieran.

BORONDATE POLITIKOA ETA ESTRATEGIA INTEGRALA

Kontrakoa esan arren, badirudi Jaurlaritzak badituela baliabide eta gaitasun nahikoak egoera iraultzeko. Lehen-lehenik, autokritika egin eta egungo egoera zintzotasunez islatzen duen diagnostia zabaldu beharko luke, nekez aurkituko zaiolako aterabiderik ezkutuan gordezen den arazoari. Jaurlaritzak mediku gehiago kontrata ditzake, nahi izanez gero, zenbait oztupo gaindituta, hala nola enplegu publikoari buruzko estatu-arauak, espezialitate jakin batzuetako profesionalen gabezia eta berak hartutako aurrekontu eta kudeaketa erabakiak.

Askotan esan duen gisara sailburuak benetan osasun sistema publikoa indartu nahiko balu, apustua egingo luke lan-baldintzak hobetzearen, aurrekontua handitzearen eta kontratazio-prozesuak arintzearen alde. Izan ere, mediku faltaren krisia ez da kasualitatea, urteetako desinbertsioaren, kudeaketa neoliberalaren eta ardura politiko ezaren emaitza baizik. Diagnostiko okerraren bidez erantzukizuna eta ardura saihesten ahalegintzeak nekez lagunduko du egoera konpontzen. ●



Mujika, Altsasun duen tailerrean. Elkarriketa egin baino apur bat lehenago konpontzera eraman behar izan zuen bizitza aldatu dion bizikleta, lasterketetan erabiltzen duen *handbike*-a.

IÑAKI MUJIKAK

Handbike txirrindularia

“Uste dena baino askoz hobeto bizi zaitezke gurpildun aulkian”

Motorrez gainezka dago Iñaki Mujikak Altsasun duen tailerra. Ilaran daude denak, baina bada barreneko gelaxka batean aparte gordetako bat. Mujikak beretzat egokitu nahi duen motorra da. 2021ean igo zen azkenekoz motor gainera; istripu larria izan zuen moto-kros zirkuitu batean, eta hantetako paralisia du geroztik. Ezbeharrak, ordea, ez du geldiarazi, eta orain *handbike*

modalitatearen bidez jasotzen du horren beharrezko duen abiadura dosia. Eskuekin mugiarazten diren bizikletak dira *handbike*-ak, eta horietako baten ganean balentria handia egin du aurten Mujikak: Titan Desert lasterketa ospetsua bukatu du. Jendeak errukiz begiratzen omen du oraindik, baina berak argi du: "Gauza ugari egin daiteke gurpildun aulkian egon arren".

Batetik bestera zabilta *handbike* gainean. Benetako pasioa, ordea, tailer honen barruan duzu; motorzale amorratua zara.

Zainetan gasolina daramat, kar-kar. Etxean zaletasun handia dute, eta ni oso umetan igo nintzen motorrera. Lau urte inguru nituela, bateria bidez zebilen moto bat erosi zidaten, eta horrekin herrian bueltaka ibiltzen nintzen. Bederatziarekin Mobylette bat eskuratu nuen, eta ondoren lehiatzeari ekin nion; ikastola bukatzean hasi nintzen lasterketan. Batik bat moto-kros modalitatean aritu nintzen. Juniorretan hirugarren postua lortu nuen Euskal Herriko txapelketan. Ez da aparteko ezer: bospasei pilotu lehiatu ginen.

Urrunago iritsi zinen mekanikari. 2021ean Dakar Rallyan egin zenuen lan, Aventura Touareg klubarekin. Sekulakoa izan zen. Mekanikari gisa, noizbait Dakarrera joatea zen nire helburua. Behin han egonda, ikaragarri gozatu nuen. Hori bai, esperientzia gogorra da: gauez ez duzu lorik egiten, egun guztia bueltaka zabilta... Baina oso giro berezia sortzen da partaide eta langileen artean. Pilotuek egunez egiten zuten lan; mekanikariok, ordea, egunean zehar material guztia helmugaraino eraman behar genuen, eta ibilgailuen konponketa lanak gauez bukatzen genituen. Erronka handia izan zen.

Bizitzaren gorabeherak zer diren: moto istripu larria izan zenuen Dakarretik itzuli eta hiru hilabetera, eta gurpildun aulkian zaude geroztik.

Kontrastea oso bortitza izan zen. Bata nire bizitzako esperientziarik onena izan zen, eta bestea, txarrena. Motorraren airean nintzela, banekien muturrerako handia hartuko nuela. Eta behin lurrean nengoela, garbi ikusi nuen larria zela. Lasterketa baten aurreko entrenamenduan gertatu zen; hirugarren biran, zehazki. Ez nintzen arriskurik hartzen ari, baina zirkuitua oso azkarra zen eta harriak zituen bazterretan. Uste dut bizkarrarekin harri horietako baten kontra egin nuela talka, salto baten ondoren.

Bizkar-muina zanpatu egin zitzaizun, orno bat lehertzearen ondorioz. Horrek hanketako paralisia eragin zizun, betirako. Hala da. ZIUan hiruzpalau egun egin nituen, eta gero Bartzelonako Guttman

“Lehen garbi nuen noizbait errepidean hilko nintzela, motoarekin. Istripua gogorra izan zen, baina ez ninduen ezustean harrapatu”



Institutuaren neuro-errehabilitazio ospitalera eraman ninduten. 21 egun pasata sendatu zen birika, eta orduan finkatu zidaten bizkarra. Gogorrena zirkuitutik ateratzea izan zen: euria hasi zen, baita haizea ere, zulo batean nengoen... Nik den-dena oroitzen dut. Konortea pare bat minutuz galdu nuen bakarrik.

Nolakoa izan zen errehabilitazio prozesua, mentalki nola egin zenion aurre?

Nik banekien halako zerbait gerta zekidakeela, eta istripuak ez ninduen ezustean harrapatu. 'Bukatu da jolasa', esan nuen nire artean. Motorrean ibilita, arriskua beti dago hor. Lehen, garbi nuen noizbait errepidean hilko nintzela, motorraren. Lasterketak baino arriskutsuagoak dira errepideak. Gogorra izan zen istripua, baita ondorena ere. Baina bizirik nago behintzat.

Bizitza goitik behera aldatu zitzaizun. Alabaina, ez zenion kirola egiteari utzi.

Guttmanekoek ez zidaten beste aukerarik eman! Etxera iritsi orduko, gustuko kirol bat topatzeko esan zidaten. Hasieran saskibaloian eta padelean egin nuen proba, baina ez nintzen eroso sentitu. Nik kirola bakarka egin izan dut betidanik, eta talde batean jardutea oso ezberdina da. *Handbike*-ak, ordea, nik behar dudana guztia eskaintzen zidan. Igo orduko, garbi ikusi nuen: "Hau da nire kirola". Sentsazio aldetik motorraren antzekoa da. Azkar zoaz, eta arriskua ere hor dago.

Zer zentzutan da arriskutsua?

Ni etzanda noa bizikletan: ez naute ikusten, eta nik ere ez dut askorik ikusten. Segurtasun neurriak badira, noski. Adibidez, bandera bat daramat atzean, eta argiak eta ispiluak ere baditut. Baina

oso adi ibili behar duzu. Zorionez, Sakana toki zoragarria da bizikletan ibiltzeko. Errepideak oso lasaiak dira, eta txirrindulari asko dabilenez, auto-gidariak jada ohituta daude. Bizikidetza beste toki batzuetan baino askoz ere errazagoa da.

Errepideko bizikleta bazenuen lehendik, baina mendikoari esker motoan ibili ohi zinen tokietara itzuli zara.

Askatasun handia ematen dit. Bidexka tenteetan barrena ibili naiteke, inongo laguntzarik gabe. Trakzioa atzean du, errepidekoak ez bezala, eta motor elektrikoa duenez, 50 kilo inguru pisatzen ditu. Motorra lagungarria da, baina besoetan indar handia behar duzu, noski. *Handbike*-an hasi nintzenean, sasoi gogor bat egin eta hiruzpalau egun ohean igarotzen nituen. Aurten jo eta ke ibili naiz bizikletan, Titan Desert prestatzeko.

Basamortuaren deia jaso zenuen berriro. Ezinezkoa zirudien inork Titan Desert lasterketa *handbike* bizikletan bukatzea, baina zugu gai izan zara, Pablo Montoia atarrabiarrarekin batera.

Nire kirol ibilbideko lorpenik handiena izan da, ezbairik gabe. Helmugara iriste soila garaipen itzela izan da guretzat. Beste batzuk saiatuak ziren *handbike*-arekin proba bukatzen, baina gu izan gara hori lortzen lehenak. Ezinezkoa zela esaten zigan mundu guztiak, eta zailtasunaz jakitun izanda, oso gogor entrenatu ginen. Uste dut gogorragoa izan zela prestaketa, lasterketa bera baino.

Zeharka, Guttman Institutuaren bidez lortu zenuen mendiko bizikleta. Eta Titan Desertera joateko proposamena ere haiek egin zizuten. Paziente guztiei ez diete gomendatuko desertuan sei egunez lehiatzea, ala?

Ez, noski! Titanera joateko, sasoi ona, mendiko bizikleta eta buru gutxi izan behar duzu. Haiek bazekiten nire kasuan baldintza guztiak betetzen direla, kar-kar. Iazko udan aipatu zidaten aurreneko aukera hori. Zalantzak zituzten: ez zekiten nola moldatuko ginen *handbike* bizikletekin desertuko hondarrean. Egun batean hondarretan egin nuen entrenamendua, posible ote zen ikusteko. "Ezta pentsatu ere", erantzun nien. Hor gelditu zen gauza. Baina hila-

bete batzuk pasata, xaxatu egin gintuzten berriro. Eta orduan bai, amua irentsi genuen. Esperantza handirik gabe, hori bai: konbentzituta nengoen lehen etapa ere ez genuela bukatuko.

Oso tara 500 kilometro egin zenituzten Saharako desertuan barrena, sei etapatan banatuta. Lehen egunean, 50 kiloko bizikleta batekin dunak igo beharra izan zenuten.

Bosgarren kilometroan hasten ziren dunak. Berotzeko tarterik ere ez genuen eduki. Edonola ere, bezperan gogotik egin zuen euria. Hau da, harea nahiko trinkotuta zegoen. Eta, horrez gain, nahiko eguraldi freskoa izan genuen etapa egiteko. Dunetan taldekideen laguntza behar izan genuen, ezinbestean. Denetarako bederatzi ginen taldean: bi paraplegiko, beste bi garuneko lesioekin, eta laguntzaile joan ziren Guttmaneko bost langile. Soilik dunetan behar izan genuen haien laguntza. Eta kanpamenduan ere bai.

Zer sentsazio eragiten du basamortuan, ezerezaren erdian egoteak?

Oso berezia eta hunkigarria izan zen. Xarma berezia du basamortuak. Ozeano handi bat dirudi. Partaideen arteko harremana ere nabarmendu nahiko nuke. Inoiz ez zaude bakarrik; egunero, abiadura berean gindoazen pertsonak elkartzen ginen, eta oso giro polita izaten genuen. Basamortuko biztanleekin, al-diz, ez genuen harremanik izan. Hainbat herrixka zeharkatu genuen, baina oso jende gutxi ikusi. Lasterketak kanpamendu nomada dauka, eta bertan igarotzen genituen gauak. Bizikidetza atsegin izan zen orokorrean, baina gurpildun aulkian egonik, oso nekeza izan zen batetik bestera mugitzea. Hori garbi utzi ziguten joan aurretik: "Etor zaitezke, baina ezer ez da egokituta egongo".

Eguneroko bizitzan ere oztopo handiak dituzula sentitzen duzu?

Ez, egunerokoan ez dut aparteko oztoporik bizimodu normala edukitzeko. Etxea egokitua dut, eta nire trikimailuak ditut herrian batetik bestera mugitzeko.

Gauza ugari egin daiteke gurpildun aulkian egon arren. Ez duzu zertan Titan Desertera joan. Baina bizimodu normala neurri handi batean berreskura daiteke. Horretarako, ordea, zeure burua normalizat jo behar duzu. Eta ez da erraza. Gurpil-



INAKI MUJIKAK UTZIA

"Titan Desertera joateko, sasoi ona, mendiko bizikleta eta buru gutxi izan behar duzu. Baldintza guztiak betetzen nituen nik"



dun aulkian geratzean, uste duzu ez zarela ezertarako gai. Hori sartzen digute buruan. Nik neuk ere hori pentsatzen nuen hasieran. Baina gero, saiatu ahala, ikusten duzu uste dena baino askoz hobeto bizi zaitezke.

Ezgaitasunik ez duen jende askok baino bizi kalitate hobea duzula esango zenuke?

Ba, begira, tristea da esatea, baina bada jendea hobe bizi dena istripu bat izan eta gurpildun aulkian geratu ostean. Lehenago agian ez zuen bere burua batere zaintzen, baina gero, bai ala bai, kirola egin beharra dago. Eta mugimenduak ongizatea dakar.

Baita burujabetza handiagoa ere, eta hori funtsezkoa da zuretzat.

Beharrik izan ezean, ez duzu jendeak ezertan laguntzerik nahi.

Zailtasunak aurkitu bezain pronto laguntza eskatuta, abilezia asko garatzeko aukera galtzen duzu. Jendeak halako bulkada bat izaten du gurpildun aulkian gaudenoi laguntzeko. Adibidez, autotik irteten edo malda bat igotzen ari garenean. Bestalde, jendeak oraindik ere errukiz begiratzen nauela sentitzen dut. "Mutil gizajoa...". Normalizatu egin dut.

Kemena berezkoa duzu? Edo landu egin duzu urteen joanean?

Uste dut beti izan naizela horrelakoa. Istripuak ere eragina izango zuen, noski, adore handia behar baita aurrera egiteko. Badakit kasu berezia naizela, beti bainago saltsaren batean sartuta. Orain, kart lasterketak ditut begiz jota. Eta handbike-ari dagokionez, Oñatiko Bizi Hadi talde inklusiboarekin ari naiz lehiatzen; iaz sortu zuten, kirol egokitua sustatzeko intentzioarekin. Eskoletan oso lan polita egiten dute: umeei erakusten diete gurpildun aulkian geratzea ez dela munduaren bukaera. Txikitatik landu behar da jendearen begirada. ●

SENDABELARREK DAKITENA LIBURUA



Sendabelarrek ez dira modaz pasatzen

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Zazpi belar ukendu egin berria ez da iritsi zaharra gure etxera. Zorionekoak gu, gertuan baitauekagu Garbiñe Larrearen *Sendabelarrek dakitena* liburua erabiltzen duen lagun eskuzabalik. Liburu horretako errezetaren batek balio izan digu, lagunartean udazkeneko xaraberen bat egiteko aitzakian, bizpahiru bazkari egiteko ere. Eta oraindik liburu hau eskuetan hartzeko tarterik izan ez baduzu, hauxe da zure momentua, irakurle, laugarren argitaraldia inprentatik atera berria baita. Ez zaizu damutuko.

Begiko mina ematen zuten errata batzuk zuzenduta iritsi zaigu liburu berria. Hala esan du Larreak: "Bai, argitaraldi berria aprobetxatu dugu, horrek lasai uzten du bat beti". Baina ez da aldaketa bakarra, 2021ean lehen liburu hura plazaratu zenetik hona izendapen zien-

tifikoetan hainbat aldaketa izan dira eta izen botanikoen eguneraketa egiteko ere baliatu da aukera. Horretaz aparte, liburuak aurrenekitik laugarrenera ez du askoz aldaketa handiagorik: "Nik oso gustura gehituko nioke testu gehiago, zenbait sendabelarren kasuan kaxoian utzitako materialak ez baitziren gutxi. Baina ezin halakorik egin, asko aldatuko litzatekeelako liburua lehen edizioetik laugarrenera", azpimarratu digu Larreak.


Harrera izugarria izan zuen lehen edizio hark. "Durangora lehen argitaraldi hartako liburu gehienak salduta iritsi ginen eta harridura itzela sortu zidan", azaldu du egileak. Euskal Herri osoan zehar ibili da sendabelarrek dakitenaz hizketan, aurkezpenak egiten han eta hemen. "Irakurleak asko estimatzen duen liburua dela konturatu

naiz, irakurtzeaz aparte, erabili egiten den liburua delako", esan du. *Kosmetikoak sendabelarrekin* Larrearen azken argitalpenak hartu dio aurkezpenen lekua eta aspaldian honetan dabil, "baina lehen liburua beti dago presente, bai aipamenetan eta bai galderetan", dio.

Udako patxada ez da batere garai txarra liburu honi heldu eta ukenduren bat egiteko. ●

Garbiñe Larrea liburuaz hizketan:





Laranja-paperetan marraztutako boikotak



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Cervera de la Marena (Ipar Katalunia), 1906. Herriko emakume garraiatzaileak lan baldintza eskasen aurka altxa ziren. Espainiako eta Frantziako estatuetako trenbideen zabalera desberdinak eraginda, garraiatzaileek Mediterraneoko kostaldetik zetozen zitrikoak tren batzuetatik besteetara bizkarrean eraman behar zituzten. Lan gogor haren truke jasotzen zituzten soldata eskasak igotzeko, sindikatu bat osatu zuten eta greba abiatu zuten; Frantziako Estatuko emakumezkoen lehen grebetako bat izan zen –ofizialki Cerbère Frantziako Ekildeko Pirinioen departamenduan baitago-. Protestaldian, emakumeak trenbideetan etzan ziren, zitrikoz betetako bagoiei –eta eskirolei– bidea oztopatzeko.

Berriki, Cerverako emakume haien omenez, Pascale Herpe artistak laranjak biltzeko erabili ohi diren 10 paper diseinatu ditu, eta Sèteko (Okzitania) MIAMen (Arte Xumeen Nazioarteko Museoa) dau-de ikusgai 2026ko martxoa bitartean, *Superbemarké* izeneko erakusketaren barruan. Baina erakusketa horretan beste laranja-paper asko ere bildu dituzte, tokian tokiko eta garaian garaiko hainbat bidegabekeria eta boikoten isla direnak.

1948an Jaffan 85.000 palestinar bizi ziren; Israelek bonbordatu ondoren, 3.000 baino ez ziren geratu. Lehenago, britainiarren agintepean, Jaffak polilaborantza baztertu eta laranjaren ekoiz-



Ezkerrean, Pascale Herpe artistak Cerverako emakume grebalariei omenez diseinaturako laranja-paperak; erdian, Palestinako laranja sionisten marka; eta eskuinean, 1970eko hamarkadan Hegoafrikako laranjei boikota egiteko eskatzen zuen afitxa.

penera mugatu behar izan zuen. 1948an bertan, Israelek Jaffako laranjondo sailak eta ur baliabideak bereganatu zituen eta Jaffa marka erregistratu zuen. Laranja kolonizazio sionistaren sinbolo bihurtu zen, eta, hurrengo hamarkadatan, baita hainbat boikot ahaleginen jomuga ere. *Boikota*, *Desinbertsioa*, *Zigorak* kanpainak Israelgo nekazaritza esportazioak jasotzeko Sèten –erakusketa antolatu duen hirian– eraiki nahi zuten nasaren aurka egin zuten eta, besteak beste, Jaffa laranjak izan zituzten helburu.

1970eko hamarkadan, apartheid garaian, Hegoafrikako laranja esportatzaile nagusi zen Outspan enpresaren aurkako kanpainak izan ziren nagusi. Urte

batzuk lehenago, 1959an, ANCko (Afrikako Kongresu Nazionala) presidente Albert Lutuli Hegoafrikako esportazio guztiei boikota egiteko dei arrakastatsua egin zuen, baina 1970eko hamarkadaren erdialdean laranja ekoizleen gehiegikerien aurkako ekintzak nagusitu ziren. Herbeheretako Albert Heijn supermerkatu kateak Outspanen laranjak saltzeari uko egin zion. Frantzian Hegoafrikako laranjen salmentek %25 egin zuten behera 1975etik 1976ra. Baina hori ez zen laranja-paperetan islatu, beste paper mota batean baizik: boikotera dei egiten zuen kartel batean mutiko beltz baten burua ageri zen, laranja balitz bezala zukutua. ●



SCHERJON/LEIZA-MONREPOS

Neandertalen gantz fabrika

Neumark-Nord (Alemania) aztarnategian 50 metro koadroko gunere berezia topatu dute adituek, *Science Advances* aldizkarian adierazi dutenez. Bertan, neandertalek ehizatutako ugaztun handien hezurak apurtzen zituzten –172 zaldi, orein eta bobidoren hezurak topatu dituzte–, nutrienteak lortzeko, bereziki gantza. "Denbora eta ahalegin

inbertsio handia egiten zuten lipido baliotsuak lortzeko", ikerlanean aritu den nazioarteko aditu taldearen esanetan. Orain arte uste izan da gizakia Goi Paleolitoan hasi zela harrapakin gantza aprobetxatzen, baina lantegi berezi honen agerian utzi du neandertalak lan horretan aritzen zirela uste baino 100.000 urte lehenago. ●

KRIMINALIZAZIOAREN GAINETIK LURREZKO HERRIA



**GARBIÑE ELIZEGI NARBARTE ETA
MIRENE BEGIRISTAIN ZUBILLAGA**
EKOFEMINISMOA EDO HERIOTZA

Euskal Herrian zein munduan, gero eta ugariagoak dira lurraren defentsan sortzen diren mugimenduak, bizitzari eusteko ezinbestekoa den lurraren balioa aldarrikatzen dutenak. Borroka hauek ez dira soilik erresistentzia; itxaropenaren eta konplizitatearen oinarri ere bihurtu dira. Kapitalismoaren kolapsoaren aurrean, bizitza erdigunean jartzen duten tresna kolektiboak dira. Lurra eta bizitza iraunarazteko elkarlana gorpuzten dute.

Beste borroka askotan bezala, lurraren defentsan ere sistemak kriminalizazioa erabiltzen du bere egitura sostengatzeko. Zutabeak dituen zisheteropatriarkatua, kapitalismoa, supremazismo zuria eta kolonialismoa kolokan jartzen direnean aktibatzen da kriminalizazio-makineria. Bizitza kapitalaren aurretik jartzen dugunean sistemarentzat mehatxu bihurtzen gara, neurri batean behintzat; horregatik, abisua argia da: horrelako posizionamendua hartzen duenarentzat kriminalizazioa izango da erantzuna. Helburua? Jendartea despolitizatzea eta desmobilitatzea. Izan ere, jakin badakite, lurraldeen defentsa ez dela “ingurumen” kontu huts bat, edo eskualde-komunitate batean dagoen borroka bat, baizik eta kontrolaezina edo kapitalizatu ezina den erresistentzia dela. Donna Harawayk dioen moduan, kriminalizazioa ez da gertakari isolatua, baizik eta boterearen teknologia da, gorpuztze disidentek eta komunitateak eta lurraldeak kontrolatzeko erabiltzen dena.

Sistema ustelak dena kutsatzen du: ingurumen-txostenak, balizko txosten sozialak eta proiektu baten zilegitasuna justifikatzeko beste hainbat tresna. Lurra xehatu nahi dutenek, legeak beren interesetara

moldatzen dituzte, eta nahi dutenean urratzen ere bai, inpunitate osoz. Noizbehinka helegite edo epaiketa bat “irabazten” badugu ere –sistema demokratikoaren itxura emateko–, itxurakeria hutsa da. Eta auzi ekonomikoren bat galtzen badute, legeak beraiek moldatzen dituzte kaltea konpontzeko. Horren adibide dira Garoñako zentral nuklearra edo AHT eta Zadorrako Ubidearen eraikuntza; orain Nafarroako eta Arabako zenbait zentral eolikoren tramitazioa bezala. Herritarrak babesik gabe gaude, lurraldea bereganatu nahi duten multinazionalen aurrean.

Kriminalizazioa gauatzeko, askotan botere instituzionalek –legegilea eta judiziala barne– bat egiten dute. Aroztegia eta Erdizko kasuek argi erakutsi dute: enpresek lehenik Nafarroako Gobernuari aurkeztu zizkieten proiektuak; nahiz eta tokiko udalek azken hitza izan beharko luketen, Iruñean babesa bermatu nahi izan zuten lehenik. Behin babesa lortuta, legehausteak ez dira oztopo bihurtzen, eta proiektuek aurrera egiten dute. Baztango kasuan, tokiko erakundeak alde egoteak lagundu du babes soziala lortzen, baina azkenean tokiko erakundeek gainetik pasatu da makina. Legeak aldeaz aurretik moldatzen dira herri-mugimenduen desobedientzia kriminalizatzeko. Aroztegiak argi uzten du: indarkeria definitzeko eskubidea Estatuak beretzat gordetzen du, eta herriari autodefentsa eskubidea urratu edo ukatu egiten zaigu.

Kriminalizazioak bizipen pertsonalean eta kolektiboan arrastoa uzten du. Bizipen-prozesua, sarritan, intentsitatean handituz doa. Prozesu horietan gakoa da bidea nola egiten den; mobilizazioak, elkarriketak eta aliantzak ezinbestekoak dira



ARAGONSOBERANIAALIMENTARIA.WORDPRESS.COM

babes-sarea sortzeko. Horregatik, jende artean aliantzak sortzeko ezinbesteko da lurrarekin eta lurraldearekin dugun harremana elikatzea. Lurraren defentsan ari garen herritarrok gure etxetat ditugu ingurua eta lurra, horrek batzen gaitu. Baina lurrarekin dugun harremana galtzen den heinean, atxikimendu hori lausotzen doa. Atxikimenduak auzokideen arteko konfiantzazko harremanak sendotzen ditu eta elkarrekin borrokatzeko kohesioa errazten du. Amankomunean duguna zer den konturatzea oinarritzkoa da.

Baina zer dugu sistemak indarrez elikatzen dituen desmobilitazio eta despolitizazio estrategien aurrean? Lurraldea eta komunitateen defentsako prozesuetan sistemak baztertzen dituen kolektiboak daude nagusiki. Sistemari kolektibo horiek botere gutxiarekin edukitzea interesatzen zaio, bizitza sostengatzeko lanak –zaintza, elikagaien ekoizpena...– egiten dituztelako, askotan musu-truk. Horregatik dira lurraren eta bizitzaren kontrako erasoak hurbilen bizitzen dituztenak, eta horregatik altxatzen dira sistemaren kontra. Sistemaren parametroetan eroso bizi denak ez dio sistemari aurre eginen; zeozer aldatzekotan, jendartean dugun posizioa interpelatzea nahitaezkoa dugu.

Euskal Herriko mugimendu feministak bide luzea eginga du, eta ahalmen handia du eraldaketa sozialerako. Lurraren defentsaren borrokan, ezinbestekoak dira mugimendu feminista eta agroekofeministaren ekarpenak. Eta ez dugu nahikoa kanpoko egiturak aldatzea; beharrezkoa da desirak, harremanak eta imajinarioak eraldatzea, lurrezko subjektu kolektibo kontziente, kritiko eta kooperatiboak sortzeko. ●

A ZE FAUNA!

MEATZARI HEGALARIA



IÑAKI MEZQUITA ARANBURU
ARANZADIKO KIDEA

Tarteka bada ere, inoiz ikusiko zenuten hego beltzeko “erle erraldoi” eta potolo bat zuen inguruan hegan. Hala bada, ziur izan intsektuen artean ikusgarrienetako bat ikusi duzuela. Eta ziur izan, baita ere, ez duzuela inongo arriskurik, itxura itzeleko erlastar honek ez baitu inongo arriskurik gizakiontzat. Emeak, izan, badu eztena, baina ez da batere erasokorra, beti eta mehatxatuta sentiarazten ez badugu. Intsektuen artean sarritan gertatzen den moduan, emeak handiagoak dira arrak baino. Jakina, ondorengoak ekartzea, arrautzak jartzea, ez da txantxetako lana eta Naturak emeari “konpentsazio” bat eman nahi izan diola dirudi, nahiz eta erruteak dozena bat arrautza izan –eta hori intsektuen artean oso errute txikia da–. Arren hegoen zabalera 3-4 cm-koa izaten da, emeena, berriz, zentimetro bat gehiago. Gorpu-

tzak hiruzpalau zentimetro izaten du. Buruan baraila indartsuak ditu, eta berauei esker zuhaitz eta egur zaharretan zuloak irekitzen ditu, meategi bateko irteera bakarreko meazulo sistema baten antzeko egitura eginda.

Bere bizi zikloa oso interesgarria da. Emeak udaberrian jartzen ditu arrautzak egurrean irekitako zulo horietako batean; esan bezala, dozena bat edo. Hor bertan janaria uzten die gero arrautzetatik aterako diren larbek jan dezaten. Janari hori loreetatik ateratako polena eta zukua probestuta osatzen du. Uda bukatzearen, erlastar heldu eta ikusgarri hauek hegan egiteko gai izango dira eta neguari aurre egiteko ere prest izango dira.

Gaur egun, eta zorionez, egur hila (zuhaitz eroriak eta) bertan uzteko jokatibidea zabaldu da. Eta horrek mesede handia egin die egur hilari esker bizi diren intsektu eta gainontzeko animaliei.

XILOKOPA

Xylocopa violacea

TALDEA: Ornogabea / Intsektua / Hymenoptera, Apidae Familia.

NEURRIA: 3-4 cm arrak, 4-5 cm emeak.


NON BIZI DA? Belardi eta basoetan.

ZER JATEN DU? Polena loreen zukua.

BABES MAILA: Europar Zerrenda Gorrian azaltzen da.

Intsektu xilofago asko eta asko (egurrez elikatzen direnak, alegia) edo egur hilean habiak, jantokiak eta bizilekuak dituztenak, egoera larrian daude. Arriskuan dauden espezieen Euskal Katalogoa aztertu besterik ez dago intsektuen zerrendarekin kezkatzeko –atal honetan bertan izan genuen hizpide *Rosalia alpina* dotorea–. Zoritxarrez, arriskuan dauden zomorro mordoskaren itxurak ez du beraien alde egiten, batzuk handiak baitira eta itxura beldurgarri samarra baitute –antena luzeak, kolorazio iluna, hegaldi indartsua–, baina nekeza da beraien artean gizakiontzat arriskurik txikiena ere dakarrena aurkitzea. Beraien mundua isila, baketsua eta bakartia da.

Polinizazioa askoren ahotan dagoen garai hauetan –polinizatzaileak jasaten ari diren arazoak gero eta larriagoak baitira–, ezin ahaztu xilokopa ederrak betetzen duen lan aparta: bere tamaina ere lagun du zeregin horretan, kamioi bat baita kotxeen artean! ●



IÑAKI MEZQUITA ARANBURU

AKAINEN ETA EULIEN ERASOAK



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Ekainak akainak ekarri ditu: uda iritsi da. Udaberriko egun beroetan hasten dira akainak ehizean, udako ehizaldi nagusirako hankak prestatzen. Garo arruntaren (*Pteridium aquilinum*) garomenetan izaten da batez ere, bide ertzera zintzilik diren orri muturretan kulunka, gustuko animalia igarotzen den arte; jauzitxo eta heldu arropan edo artilean edo... Ondoren mantso-mantso gorputz hori miatuko du, arretaz aztertu eta gogoko txokoan hantxe txast eztena sartu eta odola zurruptazera. Eztena sartzen duenean gaitzak kutsa ditzake: Lyme gaitza eta babesiosia, adibidez.

Geurean akaina ez da herenegun bazkalondoko kontua. Oso ezaguna dugu, aspaldi ekarri nuen txoko honetara topatutako izen mordoa: akain, bakasta, kapar, kapoarrada, akenzore, zigar, lakasta, likasta, litoin, tika, ardizorri, akein, lakain, bakasta txipi, lakats, artapo, kapasta, kasurri, lapar, itain eta besterik ere izango du; gure odola gustatu zaiola eta milaka urtetan bizikide izan dugun seinale.

Azken urte hauetan gero eta maizago entzuten da akainen erasoen berri. Ugaltzen ari direla diote basoan dabiltzanek, ikerlariak barne. Arrazoi nahastea aipatzen da ugaltze horren sustatzaile. Lurraren osasuna bat. Lurrean hasten da akainaren bizitza, arrautza eta ninfa denean, baina, lur hori bioaniztuna bada, bertan bere etsai ugari ere izango da: inurri, akaro, kakalardo, armiarma eta abar. 2019an, Eisen eta abarrek argi esan zuten *Journal of Medical Entomology* aldizkarian argitaratutako *Ingurumen- eta ekologia-testuinguruen garrantzia akainen kudeaketa integratuan* artikuluan: “Lurzoruko faktore biologikoen garrantzia nabarmena da akainen kudeaketa integraturako”. Pestizidak, intsektizidak, fungizidak, herbizidak, bo-



ERIK KARTIS / PEXELS.COM

tikak eta ongarri kimikoak erabiltzen dituzten abeltzaintza eta nekazaritza mota guztiek lurra eta ingurumena pobretzen dute, eta akainak, euliak eta horrelako izurriteak hauspotzen. Bioaniztasunaren Alemaniako Institutuak (iDiv) ederkiko 2024ko *Biodibertsitatea eta izurriteen kontrola: espezieen aniztasunak nola laguntzen duen laboreen osasunean* dokumentuan: “Garrantzitsua da akainen harrapari naturalak babestea eta lurzorua ekosistemari orekan eusten dioten organismoak zaintzea”. Abeltzaintzak zeresan handia du akainak atzeratzeko. Bizkarroien aurkako produktu kimikoek (Ivermectinak, esaterako) izugarri loratzen dituzte akainak eta euliak; euliek itzalguneetara bultzatzen dute azienda, akainen erasoguneetara.

Hori iraultzeko ekintza multzoa proposatzen da: lurzorua bioaniztasuna leheneratu eta hori handitzen duten agroekologiako praktikak ezarri, agrokimikoak eta bizkarroien aurkako eragin

zabaleko botikak murriztu, harrapari naturalen babeslekuak kontserbatu eta sustatu (orbeldiak, heskaiak, trinkotu gabeko lurrak), kontrol biologikoa bultzatu eta abeltzaintzaren kudeaketa kontziente egin.

Izenak ekarri nituen artikulua hartan, berriz, beregandik babesteko landareak aipatzen nituen, akaina uxatzen dutenak. Inguru natural xamar batean bizi bazara, komeni da gogoratzea zer landatu behariko zenukeen etxeko katuaren mugarrin barruan, handik behintzat kanporatzeko: txortaloa (*Mentha pulegium*), salbia sendakaria (*Salvia officinalis*), asentsio-bellarra (*Artemisia absinthium*), bortusaia (*Ruta graveolens*), Indiako krabelina edo tagetea (*Tagetes patula*), ezkaia (*Thymus communis*), albaka edo brasila (*Ocimum basilicum*), larranbiloa edo kamamila (*Chamaemelum nobile*), usain geranioa (*Pelargonium graveolens*), eromeroa (*Rosmarinus officinalis*) eta urrelilia edo krisantemoa (*Chrysanthemum spp.*). ●

MUSTAI ORTUA

“BARATZETIK BIZITZEA ERRONKA DA, BATEZ ERE JENDEAREN KONTSUMO OHITURENGATIK”



GARAZI ZABALETA

Marurin kokatutako proiektua da Mustai Ortua, Gorka Areitio Elorduik eta Marcela Pava Gomezek bultzatua. Diseinu grafikoko ikasketak egin zituen Areitio eta horretan ari zen lanean, baina gainezka eginda zebilen. Pava, berriz, abokatua da lanbidez, baina ezin zuen horretan jardun master bat egin gabe, eta lanean ari zenez, ezinezkoa zitzaion ikasketekin uztartzea. “Elkar ezagutu genuenean familiaren baserriko ortua egiten hasi ginen asteburuetan, eta ohartu ginen gustura aritzen ginela”, azaldu du Areitio. Afizio zutena ofizio bilakatzea eta nekazaritzako eta bizitzako proiektua abian jartzea erabaki zuten azkenean. 2021az geroztik, buru belarri ari dira ortugintzan.

NEGUTEGITIK HARAGO BADAGO ORTURIK

Nekazaritzako formazioa egin zuen Pava proiektua abiatu baino lehen, eta ortugintzarako saltoa ematea erabaki zutenean, inork gutxik sinesten zuen haien proiektuan. “Ideia azaltzen genuenean ez zuela funtzionatuko esaten zigun mundu guztiak, Euskal Herrian barazkiak egiteko negutegi handiak behar genituela eta hori zela aukera bakarra”, azaldu du Pava. Bestelako eredu baten aldeko apustua egin zuen bikoteak, ordea: negutegiak ere badituzte, baina zati handia aire librean lantzen dute, nekazaritza birsortzaileko ereduari, metodologia biointensiboan.

“Lurra zaintzea da guretzat oinarria. Ez dugu lurra lantzen, ez dugu rotabatorrik erabiltzen... paradigma aldaketa eskatzen du, eta tomate hidroponikoen mentalitatea duenak, noski, ez du ulertzen”, dio Areitio. Garaiko barazkiak



ekoizten dituzte Mustai Ortuan, baina baita bestelako landareak eta loreak ere. “Loreek, ortua edertzeaz gain, izurriteen aurka funtzio garrantzitsua dute”, diote. Ortuaren inguruan ekosistema osoa sortzea da eredu birsortzailearen oinarria: lurreko mikroorganismoak, intsektuak, landareak, zuhaixkak... “Mikroekosistema horretan dena orekatuago dago eta izurriteak eta antzekoak egotea zailtzen du horrek”.

AZOKAK ETA ZUZENKO SALMENTA

Ostiralero Mungiako azokan egoten dira Mustai Ortuko kideak, eta larunbatetan Bilboko Arenalean. Udan, Bakioko azokara ere joaten dira ostegunetan. “Horrez gain, kontsumo taldea ere martxan dugu, otarren bidez funtzionatzen due-

na”, diote. Eta, inguruko herrietako dena txikiekin, eskola bateko jantokiarekin eta hainbat jatetxerekin ere egiten dute lan. “Kontsumitzaileekin zuzeneko harremana izatea garrantzitsua da guretzat, alde hezitzailea ere baduelako, naturaren zikloak ezagutarazten dizkiegulako”, diote.

Proiektuaren bultzatzaileek nabarmendu dute baratze gintzatik bizitzeko zailtasunen artean klima aldaketarena ere hor dagoela, baina kontsumo ohiturak eta jendearen mentalitatea direla, gehienetan, oztopo nagusia. “Kontsumitzaileekin, askotan izaten da ‘nik hau nahi dut eta orain nahi dut’, garrantzirik eman gabe garaikoa izateari, non eta nola eginga den... tokiko azokak herritarrengana iristeko modu bat ere badira”, azaldu du Pava. ●

“ ”

Indarkerian esku hartzeko marko hegemonikoek ez diote onik egiten emakumeak suspertzeko prozesuei

Laura Macaya

Urte luzeak daramatza Laura Macayak indarkeria jasan duten emakumeei lagun egiten, arlo instituzionalean, militantzian, bai eta beste justizia-eredu batzuetatik abiatuta ere. Horri guztiari buruzko liburu bat kaleratu berri du: *Gatazka eta abusua ez dira gauza bera* (Katakarak, 2025; itzultzailea: Amaia Astobiza). Euskal Herriko hainbat lekutan aurkeztu zuen maiatzean: hausnarketa deseroso bezain beharrezkoak dakartza.

 DANELE SARRIUGARTE MOCHALES  DANI BLANCO / ARGIA CC-BY-SA

Hasteko, liburuaren harreraz galdetu nahi nizuke. Euskal Herrian, behinik behin, harrera beroa jaso du.

Liburuaren harrera oso ona izan da. Orain urte batzuk hasi nintzen Euskal Herrira etortzen, punitibismoaren kritikaz aritzeko, eta hemen oso prest agertu zarete ikuspegi hori jasotzeko. Baina oro har harrera ona izan da kontzientzia-hartze bat tarteko: argi dago orain arte egin denak ez duela berebiziko emaitzarik ekarri. Indarkeria matxistaren intzidentzia apenas aldatu da, eta emakumeen bizitza ez da hobetu; aldiz, sustatu den sisteman, modu sistematikoan jazartzen zaie zaurgarriari, eta zenbait praktikak, hala nola kantzeldazioak eta bazterketa sistematikoak, komunitate

afektibo eta politikoak suntsitzen dituzte.

Gainera, kapitalismoaren krisi bortitz batean gaude: gero eta pobretze handiagoa dago, gero eta komunitate gale-
ra handiagoa... Beraz, artikulatzeko eta komunitateei eusteko premia dago, eta indarkeriari heltzeko marko punitiboek, gaur egun dauden bezala, ezin diote horri erantzun. Gainera, ez diete erreparaziorik ematen indarkeria jasan dutenei.

Komunitate, prozesu eta antolakunde mordo bat hautsi dira goitik behera, lotura afektiboak eta politikoak deuseztatu, gatazkak edo konpondu gabeko indarkeriak blokeatu direlako. Horrek arazo handiak dakartza: antolakunde horietan bertan behera uzten dira helburu batzuk

–esaterako, etxebizitzaren aldeko borroka edo auzoko turismoaren kontrakoa–, zeinak ezinbestekoak baitira gizartearen-tzat orokorrean, justizia sozial handiagoa eskuratzeko, eta, batez ere, indarkeria matxista jasan duten pertsonentzat.

Feminismo antipunitibistari lotutako gogoeta mordo bat biltzen dira testuan, baina jakintza hori dena urte luzetako lanaren fruitua da.

Bai, eta ez da lan pertsonala soilik, baizik eta, batez ere, kolektiboa. Izan ere, gaur egun Generan gabiltzan pertsona askok [elkarte bat da Genera, eta indarkeria matxisten lanketa eraldatzailean aritzen gara] aspalditik dihardugu elkarrekin ibilbide profesional eta militantean. Azken 20 urteotan hausnarketa-prozesu oso bat garatu dugu elkarrekin, indarkerien kontuaren harira, hori izan baita gure lanaren eta militantziaren ardatza, feminismoaren eta kartzela-sistemaren aurkako zein errepresioaren aurkako kritikaren markotik. Erresistentzia eta *bullying* asko jasan ostean, gaur egun, antipunitibismoa gero eta zentzuzkoagotzat hartzen dela ikusi dugu.

Genera elkarte aipatu duzu.

Genera antolakunde politiko bat da; gaur egun hor ari naiz lanean, baina kolaboratzaile moduan aritu naiz 2008tik. Hasieran, Generak sexu-lanaren deskri-



minalizazioaren ildoak lantzen zuen beziki; duela hiru urte nik eta beste bi ki-dek elkartearen gidaritza hartu genuen. Gaur egun, sexu-lanaren deskriminalizazioa eta sexu-langileen eskubideen defentsa lantzen ditugu oraindik ere, baina begirada antipunitibista txertatu dugu; sexu-langileen kasua, izan ere, paradigmatikoa da: indarkeria matxistaren bat jasaten dutenean, babes- eta aitortza-zirkuituetatik kanpo geratzen dira. Ez dira "biktima ona", ezta "biktima purua" ere. Lan-arloko boteretzeari, estigmaren aurkako prozesuak eta oinarritzko eskubideen lorpena lantzen ditugu, ukatu egiten baitzazkie, baina, horretaz aparte, indarkeriari heltzeko metodologia ez-baztertzailak, ez-paternalistak eta ez-biktimizatzaileak garatzen ditugu. Nabarmen kriminalizatutako emakumeak izaten dira, ez bakarrik sexu-lanean jarduteagatik, baizik eta ez dutelako betetzeko feminitate zuri eta onberaren rol hegemonikoa. Ama txarraren, emakume txarraren, baliabide publikoen erabiltzaile txarraren estigma jartzeko zaie besteak beste. Funtsean, emakume haustaileak dira, modu sistematikoan zigortzen dituzte haustura horiengatik, eta ez zaie babesik eskaintzen indarkeria jasaten dutenean; aitzitik, kriminalizatu egiten dituzte.

“ ”

Eraldaketa soziala da biderik seguruena guztiontzat

Harrerako eta Indarkeriari arreta emateko udal zerbitzuetan jardun zara Bartzelonan. Zigorren mekanismo hori ikusi izan duzu? Harreran, esaterako, oso nabarmena da. Marko horietan biktima onaren eredu jakin bat nagusitzen da: biktima hain dago jota indarkeriaren eraginez, ez baita gai bere biziari buruzko erabakiak hartzeko. Prozesu horietan biktima-egoera moralizatzen da, eta biktimen izaeraren eta beharren ikuspegi homogeneo bat ezartzen, abantaila ekonomiko, sozial eta sinboliko handienak dituzten emakumeen eredua hartuta. Aurreldiseinatutako prozesu horietan ez da emakume horien autonomia errespetatzen, ezta beren aniztasuna ere, eta espektatibak

betetzen ez dituztenean, biktimaren roletik kriminalaren rolara igarotzen dira. Orduan, printzipioz “emakumeak babesteko” xedea duten marko instituzionaletatik, zigorrak eta errepresaliak ezartzen zaizkie, ez zaie aitortzarik ematen eta auzi moralek inondik ere baldintzatu behar ez litzuketen eskubideak ukatzen zaizkie.

Argi ikusi genuen indarkerian esku hartzeko marko horiek, urte luze-luzetan hegemonikoak izan direnak udal zirkuituetan eta administrazioako zerbitzuetan, berez kaltegarriak direla emakumeentzat beren suspertze-prozesuan eta indarkeriarekiko autonomia garatzeko prozesuetan. Eta orobat ikusi dugu biktima-errudun pareak, marko penalean ez ezik, marko feministan ere aktibatzen dela.

Hortik dator bestelako justizia baten beharra.

Hain zuzen ere, ikasketa eta bizipen horiek denak aintzat hartuta, badira lau bat urte geure marko metodologikoa garatzen hasi ginena, indarkeria matxistei heltzeko erreparaziozko justizietatik eta justizia eraldatzaileetatik, eta emakumeei, kuir pertsonari eta komunitate politiko zein afektiboari lagun egiteko.

Ikusi dugu gaur egungo marko administratibo punitiboetan ez dagoela lekurik sexu-langileek bizi dituzten indarkeria batzuei arretarik eskaintzeko. Eta ez hori bakarrik: ez diete erreparaziorik ematen klase ertaineko emakume zuri eta ideologia kontserbadorekoaren eruditik at dauden eta indarkeria jasan duten emakumeei, esate baterako, disidente politikoei. Halaber, ohartu gara marko punitiboa zabaldu egin dela eta gure komunitate eta sareetara iritsi dela. Eta hortik abiatuta indarkeria matxistei heltzeko lan-metodologia bat garatu dugu, komunitarioa eta feminismo intersektzionalean eta justizia eraldatzailean oinarritua.

Zein dira metodologia horren zutarrak?

Justizia eraldatzaileko prozesuen helburua da indarkeria matxistaren atzean dauden harreman sozial zapaltzaileak eraldatzea maila pertsonalean, erlazionalean zein sozialean. Indarkeria ez da pertsonen arteko gatazka gisa ulertzen, jokabide partikularretatik harago doazen eredu zapaltzaileen erreproduktzioak eragindako kalte gisa baizik. Horrek ez du esan nahi kaltea eragin



“ ”

Erresistentzia askoren ostean, antipunitibismoa gero eta zentzuzkoagotzat hartzen da

duenak ez daukala erantzukizunik, baina erantzukizun hori berrosatze komunitarioaren eta erasoak jasan duenari egindako kaltearen erreparazioaren matrizearen barruan ulertu behar da, ez zigor soil gisa.

Guretzat, adibidez, lehentasun bat da borrokan dauden komunitateak indartzea, desegin ez daitezen eta borrokan jarrai dezaten. Horretarako beharrezkoa da prozesu horietan kaltea jasan duen pertsonak parte hartzea, baina baita kaltea eragin duenak ere, eta bi pertsona horiek bere baitan hartzen dituen komunitateak ere bai –erakundea, bizikidetzak-unitatea, lagun-taldea eta abar-. Erantzukizun kolektibo bat gauzatu ahal izateko, kalteak eta loturak sendatzeko eta indarkeria horren kausetan esku hartu ahal izateko.

Oreka zaila dirudi.

Horretarako, noski, albo batera utzi behar ditugu gaur egungo marko nartzisista eta indibidualistak, bestearekiko gorrotoan eta bestearen ezabaketan zentratuak. Aldi berean, tentsio bat dago kalte bat jasan duen pertsona babestearen eta, aldi berean, kaltea eragin duen pertsona ez kanporatzearen artean, baina uste dugu euts dakiokela. Are, guk horretan dihardugu, eta posible da. Tarteke pauso batzuk daude, noski. Guretzat, prozesu horietan garrantzitsua da alderdi guztiei lagun egitea, baina agian modu bereizian egingo da, ze prozesu kolektiboak ezin dira bidearen une orotan egin.

Azalduko zenizkidake pauso horiek, urratsez urrats?

Guk hainbat urrats ezarri ditugu prozesu horretan: komunikazioa, behin-behineko identifikazioa, ikerketa, azterketa eta arriskuen ebaluazioa, eta, horrela, aztertzen ari garen indarkeria-mota edo gatazka-egoera bakoitzerako ibilbide espezifiko bat finkatzen dugu. Ibilbide horietan, metodologia zehatz bat ezartzen dugu erreparazioarako, kaltea eragin duenari ardura hartzen laguntzeko eta komunitatean suspertzeko. Guretzat lehentasunezkoenak dira, behar bada, kontzeptualizazioa eta arriskuen ebaluazioa; egoera ondo ebaluatu ahal izateko, hori da gaur egungo zenbait ikuspegitan ikusten dugun arazo nagusietako bat, egoerak bereizteko eta mailakatzeko zailtasuna.

Eta zuek nola egiten duzue?

Adierazle batzuk dauzkagu, eta horien arabera neurtzen dugu ea zer arrisku egon daitekeen, ea erasoak egin duen pertsona eraldatzeko zer aukera dagoen, ea zer behar dituen indarkeriari edo dena delako beste egoerari bati aurre egin dion pertsonak, ea zer elementu intersektional irakur ditzakegun, ea zer potentzial duen komunitateak egoerari lagun egiteko... Eta, hori guztia aintzat hartuta, indarkeriari aurre egin dion pertsonari lagun egiten diogu erreparaziora bidean, kaltea eragin duenari erantzukizuna hartzeko bidean eta komunitateari berari, halakorik baldin badago.

Zuen ikuspegitik, zer da erreparazioa?

Batetik, indarkeria jasan duen pertsonaren suspertze indibiduala litzateke,



baina, halaber, indarkeria ahalbidetu edo erraztu duen markoaren gainean eragitea ere bai. Indarkeria ez da kontu interpertsonal hutsa. Marko bat dago, egoera hori osatzea edo gaiztotzea erraztu duena. Maiz modu tamalgarrian esku hartu da, eta egoerak okerrera egin du, eta gu iristen garenerako sekulako kakanahastea dago, ez delako ondo kudeatu, edo ez delako ondo jaso sufritzen ari zen pertsonaren eskaera, edo beste jarrera arduragabe bat nagusitu delako: biktimak dioena egin, eta kito.

Jarrera horrekin oso kritiko ageri zara liburuan ere.

Askotan egiten da, baina arduragabe-keria galanta da. Horrek erakusten du zuk ez daukazula metodologia argi bat, ez daukazula esku hartzeko modu bat, posizionamendu bat. Ez duzu nahi, ez dakizu nola egin, edo ezin duzu, eta, azkeneko biktimaren gain jartzen duzu ardura guztia. Ez diozu esaten: "Begira, lagun egingo dizugu, honako termino hauen arabera, eta esateko daukazu-na entzungo dugu". Horren orde, bere

“ ”

Biktimari lagun egitea ez da guztiari baietz esatea, baizik eta zintzotasunetik jardutea

gain jartzen duzu ez bakarrik bere prozesua, baizik eta komunitatearena eta kalte egin dion pertsonarena, eta zama eutsiezina da hori sufritzen ari den pertsona batentzat. Lagun egitea ez da guztiari baietz esatea, baizik eta zintzotasunetik jardutea, muga etikoekin eta zaintzarekin.

Azken galdera bat. Kontzeptuen zehaztasuna oso garrantzitsua dela argi geratzen da liburuaren izenburuan bertan. Gatazka ez da

abusua. Eta segurtasuna zer da, edo zer ez da?

Segurtasunaren ulerkeria neoliberalak nagusitu da. Gure testuinguruan –zer-bitzu publikoak eraisten ari dira, biztanleriaren gero eta geruza gehiago pobretzen ari dira, egoera administratibo irregularrean dauden pertsonak poliziaren jazarpena jasaten dute–, segurtasuna ez dugu lotzen bizileku bat izatearekin, aberastasunaren banaketarekin, zaintza sostengatuekin eta sexu-askatasunarekin. Baizik eta eraso indibidualik ez gertatzearekin.

Segurtasunari eta arriskuari buruzko ulerkeria horiek denek zerikusia dute biktimaren, eraso egin duenaren, oinarritzko arazoaren eta aktibatu behar diren arduren harira daukagun irakurketarekin. Horrek ez du esan nahi ardurarik ezarri ezin izatea, edo babes-neurririk ez ezartzea; baina arriskuaren arabera irizpideetan oinarritu behar dira, behin-behinekoak eta berrikusgarriak, eta ez dira ezarri behar zigor disimulatu gisa. Eraldaketa soziala da biderik seguruena guztiontzat. ●

AGUSTIN KARDABERAZ

‘EUSKARAREN
BERRI ONAK’*Dagoenean dale, ez dagoenean bale* GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Parranda dezente egindakoa naiz Kardaberazen –Hernanin izen hori zeukan kalean, alegia–, baina ez nuen asko espero festa egin ahalko nuenik inoiz Kardaberazekin: a ze dibertimendua 1761ean argitaratu zuen *Euskararen berri onak*. Idatzi zituen beste lan gehienak ez bezala, erlijio-kontuak alde batera utzi –aber, XVIII. mendeko apaiz bategen hori egin zezakeen neurrian, ez pentsa ez-dakit-zer ere–, eta euskaldunei gramatika eta erretorika irakaskaspen batzuk emateko aitzakian, *txunpa-txunpa*, txaranga baten atzetik bezala, zintzilikatzen da tipoa Kintilianoren eta Manuel Larramendiren sorbaldetatik, eta idazten dizu mende hartako euskal literaturak utzi duen libururik entretenigarrietako bat.

Estilo bizi-bizian idatzia, irakaspenak, anekdotak eta iritzi polemikoak libreki nahasiz, irakurlearentzat festa da Kardaberazen testu hau, batez ere saiakera literarioa maite duen

irakurle mota horrentzat; nahiz eta euskarari buruzko kezkak motibatutako liburua izan, pixka bat kopetilun ere agertzen den une batzuetan. Arrazoiak ez zaizkio falta: 100 urte baino gehiago pasa dira Axularrek *Gero*-ren irakurtzaileei egindako abisutik –“Baldin egin baliz euskaraz hanbat liburu, nola egin baita latinez, frantzez edo bertze erdaraz eta hitzkuntzaz, hek bezain aberats eta konplitu izanen zen euskara ere; eta baldin hala ezpada, *euskaldunek berek dute falta, eta ez euskarak*”–, baina berdin samar jarraitzen dugula dirudi. Hitz berdintsuekin seinالاتu behar beraz: “Alere asko, egieki, euskera galdu da. Baña ori ezta *euskararen, ezpada euskaldunen desonra*”.

Ai, euskaldunak. Beren hizkuntzan idatzitako liburuak esku artean hartzeko sentitzen zuten –duten, *joder*, duten– alferkeria horrexen salaketan hasten da Kardaberazen idazkera entretenigarria izaten. Zuk ere gure utzikeria akulturizatzailearen kontra

maldizioka hasteko premia sentitzen baduzu, hartu lasai haren hitzak mailleguan, denentzako baitauka, analfabetoekin hasi –“zer lotsa gaizto itsusiagorik, euskaldun galtzadun edo gizon egin bat, lau errengloi euskeraz ezin irakurririk, ez atzera ta ez aurrea, lotuta ikustea baño?”–, euskañolez ari direnekin segi –“ez itz egiteko ta ez elkar aditzeko erdarazko ta euskarazko naspilla moldakaiz eta nazkagarri bat entzun oi da”–, eta madarikazio orokor samarrekin amaitu –“euskaldun alper ajolakabeai esan dakieke: astoaren aorako ezta ezta, baña bai belarra”–. Nori eman badagonez, Kardaberazek dale.

Aldi berean, hernaniarrak optimista izan nahi du. Iruditzen zaio ez dela askorik egin behar jende pila bat euskal letretan trebatzeko. Gimnasio mentalean ordu batzuk, horixe: “Lau eguneko ejerjizio piska batekin seguru, erdaraz bezala edo aisago, euskeraz irakurtzera egingo zera”. Ideia hor dago aspalditik, askotan errepikatzen

du gainera: “Uso ta kostunbreak guztia erakusten du”. Ez mamitzen, ordea. Frogarik argiena da, gaur goizeko kafearekin ere esan duela baten batek egunkari/astekari/liburu hori “zaila” dela, euskaraz dagoelako.

Inbertsio handiak egin dira iritzi orokortu hori fabrikatzeko. Horretaz ere jabetzen zara *Euskararen berri onak* irakurtzen, frankismoa baino bi mende lehenagokoa izanagatik, ordurako abian zen linguizidioaren lekukotasuna ere bai baitakar: “Emen guraso ta maisuak falta andi bat erremediatu bear dute, ta gure euskerari orañdaño baño mesede geiago egiñ: jendeen artean beste linguajerik euskera baño ditxa gabeagorik ezta ikusi, ta, gure jatorrizko edo jaiotzako izkera ez balitz bezala, ta euskaraz itzegitea pekaturik aundiena balitz bezala, giza artetik kendu ta lurpean ondatu nai dute, ta eskoletan sortija edo siñaleakin, azote ta kastiguakin, eragotzi nai dute”.

“Al datekean disparaterik bidegabeena” iruditzen zitzaion hori Kardaberazi. Eta bazuen alternatiba buruan. Bere garaiari asko aurreratu zitzaion, euskara irakasteaz gain, eleanitza izango zen eskola imajinatuz, metodo pedagogiko aurreratuak aplikatuko zituen: “[U]tsegitean, oiei soseguz ta grazia onean, nola ondo irakurri edo esan bear duten, adirazi bear zaie, eta ez bildur ta ikarakin. Oitu bear dira, ez emengo izkeran bakarrik, ezpada edozeñ dialektotan, eta Frantzia edo Nafarroako edo Bizkaiko libruetan ondo ta trebe irakurtera”.


Baina ez dagoenean, bale: XVIII. mendeko problema batzuek XXI. enean kanbiatu gabe jarraitzen dute eta, honezkero, ez dakit ba inoiz aldaturiko diren. Euskal derbietako giroa, adibidez. Probintzianismo txatxua. Foralina eta zikina. Diferentzia baka-

rra, baloiaren atzetik korrika aritzea oraindik modan ez zegoenez, giputxi-bizkotxak posposizioei ostikoka aritzen zirela Kardaberazen garaian: “Eskola-mutil bi beñ batean, euskera-
ren gañean, beren eztabaidetan ikusi nituen. Bata Bizkaitarra, ta bestea Gipuzkoarra zan. Beren modura aserretu ziran, ta ezin besterik egin, ta deadarrari biak eman zioten: Bizkaitarrak deadar: *Kin, kin, kin*; ta Gipuzkoarrak: eta ondo aspertu ziranean, bereala pakeak egin zituzten”.

Garbi dago, “gisa onetan edo bestean itzegitea, ferian edo dendan erosten dan gauza ezta”. Alegia, hemen bakoitzak bere dialektoan hitz egiten du. Eskribitzen hastean ere, horri jarraitu behar dio, Kardaberazen ustez betiere. Konturatzen da ordea, hizkuntzaren sakabana-tze horrek dakartzan problemenez –“nola Euskalerrietan era edo manera jakiñik ta guzientzat berdiñik orañ artean izan eztan, egokiro itzegitea erraz ezta”–. Liburuaren amaiera alde-
ra, mingainaren puntan dauka euskara batuaren premia. Garai hartako idazle bati gehiegi eskatzea da, ordea.

Ez pentsa, hala ere; Kardaberazek bazekizkien gauzak, gaur egungo letra-juntatzaile askok inoiz ikasi ez dituztenak: “Usadio txarra berneak ebaki, esan oi da: ta alferrikako letra asko utzi ta, itzez esaten edo aoz pronunziatzen dana garbiro eskribituaz, obeto ta errazago azertatuko da”. Euskara batua bezalako inbento zoragarria jai eta aste sustantzia gabeko prosa txosteneroan itotzen ari direnek asko lukete ikasteko herna-niarraren idazkeratik. Berak esana da, gainera: “Apaiz asko txit erraz eskribitzera nere konsejuz egin dira: zu gutxiago etzera, ta bearbada obligazio geiago dezu”. ●






BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO
ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3
KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

7	1	3		5				
4		5			2	1		8
		6	1		4	5		
	3			8	1	7	4	
	5			2		3		
6	7	1		9		8	5	
	4					6		7
1	6	7			5			
		9	6					

ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA,
HITZ BERA.

1. Altxatu.
2. Joera, zaletasun.
3. Ehiza.
4. Ardura.
5. Inquruak.



5X5:	7	1	3	9	5	8	2	6	4
JAIKI	4	9	5	3	6	2	1	7	8
AIHER	2	8	6	1	7	4	2	5	3
IHZI	9	3	2	5	8	1	7	4	6
KEZKA	8	5	4	7	2	6	3	9	1
IRIAK	5	4	8	2	3	9	6	1	7
NAK	3	2	9	6	1	7	4	8	5

K	V	N	E		V	U	J	V	U	Z
I	L	G	V	S	E		O	I	L	
T	E	M	A	K	I	T	I	U	R	J
	K	X	I		J		B	S	E	
I		T	T					H	S	O
S	U	S	A					O	E	
V	N	O	R						V	D
R	I		U					O	R	
V	E	N	U		I	S	O	N	I	K
I		G	E	I		V	O	I	V	A
V		O	R	I		G	A	R	I	X
S			X		V		E		F	T



Zuritxo, egon deseroso

MARIA ORTEGA ZUBIATE DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

Hasi orduko, ohar bi. Bat: “Deseroso egongo zara apur batean, isildu eta entzun. Asko ikasiko duzue pribilegio zikinetaz”. Bi: “Gaur ez dago txalorik, ez dago ezer ospatzeko. Zuek jai egin dezakezue pribilegiatu batzuk zaretelako. Deseroso sentitzea da eskatzen zaizuen gutxienekoa”. EHZ festibaleko hirugarren eguna da, eta jende andana sartu da Arberatz-Zilheko elizara, bero sapa saihestera edo emanaldia benetan entzutera, batek jakin. Orain bai, itxi da elizako atea, eta hasi da Queer Falafel-en *Ez duzu arabiarra ematen* emanaldia: jendearen abanikoen joan-etorriak mozten du, soilik, isiltasuna.

Ekialde Hurbileko gona luze eta len-tejueladun maskara jantzita hasi du ekitaldia Queer Falafelek. Ekialdea eta hurbila diogu, baina berak “kolonialismoa” dio: “Nola egon daiteke zerbait ekialdean mundu esferiko batean?”. Soinuz bete da eliza, musika arabiarra techno nahaskekin entzuten da artistaren ahotsean, gero Mendebaldeko berriemaileak ikusten dira atzean duen pantailan, zibili-

zazioaz hitz egiten, Siriaz eta Ekialde Hurbileko zibilizazio ezaz. Siriako bardaketak ikusi dira, zaurituak, patere-tan heltzen diren migratzaileak itsasoan eta Santiago Abascal-en eta Emmanuele Macronen hitzak, soinu banda.

Elementu askoko performancea dakar Queer Falafelek, *arabsplaining*-a, gauza argi bat azaltzeko: kolonialismo eurozentrikoa dela *kaka* guzti horren oinarria, eta europearrok hain ditugula pribilegio asko ez dakigula ditugunik ere. “Ez da kasualitatea nahi duzuen leku guztietara bidaiatu ahal izatea, ura eta elektrizitatea izatea eta bonbarik ez izatea zuen herrietan: zuek ordaintzen dituzue, zuen zergekin, beste leku batzuetan erortzen diren lehergailuak”.

Premisa horretatik abiatuta egin ditu ondorengo zehaztapenak. Jabetza pribatua eta zisheterosexuala ez den guztia kriminalizatzen dituzten lege guztiak kolonialak dira. Eta Israel ere koloniala dela argi utzi du; are, Europako kolonia bat da. “Israel zarete”. Eta mendebaldetarrak ez dugu horren berri, historiari buruz irakatsi diguten guztia “gezurra” delako, eta

QUEER FALAFEL

NON: Arberatz-Zilhekoan, EHZ festibalean.

NOIZ: ekainaren 29an.

guretzako aukera bat delako ez-politiko izatea. Gure normalitatea “lapurtutako pribilegio bat” da, Mendebaldekoa ez den orori ostutakoa. Horregatik, guretzat ez-politiko izatea aukera bat den moduan da “oinarritzakoa” disidentzia eta politiko izatea ez mendebaldetarrentzat.

Gonarik eta maskararik barik, bainujantzi, takoi eta aurpegia estaltzen dion zaku batekin gogorarazi du zurtasuna ez dela azal kontua bakarrik, eta, ondorioz, arrazistak garela jaiotzez. Hori ukatzen duten zurien hauskortasunaz trufatu da eta gomendioa luzatu du: “Egin dezakezun gauzarik antiarrazistena da onartzea arrazista zarela”. Oholtza atzean utzita egin du alde elizatik, ahots metalizatu batek txalorik ez egiteko gogorazten duen bitartean. Pantailan, irudi kaotikoen artean, mezu argi bat: *You kill. You have killed. You will kill.* Hil duzue. Hil egin duzue. Hil egingo duzue. Dugu. Eta orain zer egin zuk erabaki: festibalean segi eta kaña bat hartu, zure pribilegioez gozatzen; edo *furgoa* jaso eta etxera segi, egiak aurpegian eztanda egin eta hautsi zaitu-eta. ●



LIBURUA

Bizitzaz eta beste



TXALAPARTA

AGUR KARIBU

MARIAN PORCEL

ELKAR, 2025

XABIER ETXANIZ ERLE

Zaila da nobela hau definitzea, abenturazkoa da, inizatikoa, filosofikoa, ekologista; baina horiek baino gehiago, edo horien guztien ondorioz, nobela erakargarria da *Agur Karibu* hau. Erakargarria da irakurtzen hasi eta Julenen esperientziaren berri izan nahi duzulako, amama Petraren bizitasuna –eta hurbil duen heriotza– hunkigarria delako, amama eta ilobaren arteko bidaia zoragarriaren nondik norakoak jakin nahi dituzulako, edota mutilak Amka neska gazte inuitarekin duen harremana ezagutu nahi duzulako.

Julenen amona oso gaixorik dago, zientzialaria da eta, berriro, Artikora joan nahi du. Amonak Julen gaztea

gonbidatzen du berarekin belaontzian egingo duten bidaiara: “Bide berriak esploratuko ditugu, kale zaharretatik abiatuta!”.

Liburuan bidaiaren berri izango dugu, nola moldatzen diren ontzian, nolakoak diren marinak (amonaren lagunak, Julenek apurka deskubrituko duenez), nolako den ontzi bateko lana eta bidaiaren aurkitzen dituzten zailtasunak, edertasunak, paisaiak eta animaliak. Baita amonaren bizitzaren inguruan osatu den lagun eta adiskidetzaren sarea ere. Eta horiekin guztiekin batera, iloba eta amonaren arteko harremana, azken horrek bizitzaz uste duena, nola egiten dion aurrera heriotzari.

Misterio edo jakin-min puntu bat

ere badago orriak aurrera egin ahala: zergatik egin nahi du bidaia hau amonak? Amaierak hori dena argituko du, eta irakurleari istorio zoragarrian zehar ibilaldi bat egin duela irudituko zaio, baita bizitza bakarra dela ere, gogorra batzuetan, hunkigarria bestetan, baina bizi egin behar dugula.

Orain artekoa ikusita argi dago nobela hau egokia dela une atsegina igarotzeko, kapitulu nahiko laburretan egitura-tuta, erritmo bizian kontaturiko istorioa dugu, protagonista gaztearen ikuspuntutik eta irakurlearen harrapatzeko moduko estilo eta bizitasunarekin. Irakurketa maila ezberdinak izan ditzakeen obra dugu, baina, batez ere, irakurketa ugari eskaintzen dituen idazlan literarioa. ●



MUSIKA

Benetako apokalipsiaren ateetan

LUCÍA DE ANDRÉS



ALEGORÍA DEL MAL RAT-ZINGER

KASBA MUSIC, 2025

IKER BARANDIARAN

Apokalipsiaren aurreko garai ustel hauean, non eskuin atzerakoienak lortu duen bere diskurtsoa erdian jartzea, erabat ezabatuta dagoen gizarte batean, zeinari bakarrik axola zaizkion sareetako *like*-ak. Beldurra barruraino sartu zaigu, bizitzek kobaltoak eta gasak baino gutxiago balio duten lurra eta zibilak masakratzen dira, egia lurperatu, familiak etxegabetzen eta aldi berean halabeharrez okupak direnak kriminalizatu, inbertsio funts eta arma *holding*-ak gizendu -sionista nazkagarriak!-. Eta, bitartean, zer eta nola borrokatu ez dakien ezkerre galdua dago.

Testuinguru horretan dator Bilboko Rat-Zinger taldearen azkeneko lana, be-

tiere gordina eta egiazkoa. Bost kanoika da berri aurkezten dizkigute: Lions Law taldeko Wattie-ren laguntzarekin, One Way System-en eta Exploited metaleroenaren espiritua berpizten duen *Todos los malditos policias* in-your-face punk gitarreroa; metalhead eta motor-buru sutua den *Mi vida sin mí*; DF-ko Acidez taldearen abeslari ohi Tupa-k parte hartzen duen punk-rock amorratu eta gupida gabeko punteoak dituen *Calibre 12*; bihotzaren sakontasun ilunenetik Johnny Cash eta NIN irmoak omentzen dituen *Sólo soy dolor*; eta kale izkinako hard-rocka, Quemando Ruedas-en eskolakoa den *El tiempo nos dará la razón*.

Eta, horrez gain, orain arte estolderia digitalean soilik plazaratutako taldea-

ren zenbait klasiko ere oparitu dizkigute: *En su trozo de tierra* (Señor No-ren antzeko kadentzia daukan balada rockeroa); *Chivo Loco* (itsaskorra bezain sorgindua den rock metaleroa); *Contra toda la humanidad* (sarraski akustikoa izan daitekeena); *Voy a ser un malnacido* (punk-rock eta metal azkarrenaren larrualditik sortua, taldearen esentzia); *Polvo* (anfetaminazko poesia); *Días de comisaría* (kanoi bazka eta heriotzara arte anti-polizia); eta *Aullo al sol* (Al Jourgensen zeharo gain eginda eta Supersur-ean galduta). Azken atzaparkada horiek *No habrá piedad para nadie*-ren *Vol 1* eta *Vol 2* bildumatan ikusi zuten argia, baina orain biniloan haginka egiteko irrikan daude. ●

Pogrom

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Astelehen goiza zen orduan ere. Aste hura ere ez zen ondo bukatuko. Herschel Feibel Grynszpan, hamazazpi urteko gazte judua, Parisen bizi zen osabarekin. Paperik ez, lanik ez, egunero-egunero atxilotuko zuten beldurra hezurretaraino sartua. Inora ez, inora ezin. Alderrai gosetua, arropa higatuak, zapata gastatuak: konbinazio bitxia aza-roaren 7 hartan pausoa bigunduko zion alfonbra dotorearekin. Lille karrikako 78. zenbakiko enbaxada alemaniarrean sartu zen.

Enbaxadore jaunarekin hitz egin nahi zuela esan zuen, dokumentu garrantzitsua omen zeukan hari eskura eman beharrekoa. "Von Welczeck jauna ez dago hemen une honetan", erantzun zion idazkariak, "baina Vom Rath jauna bildu daiteke zurekin, ondo baderitzozu". Funtzionario nazi gazteak Grynszpan bere bulegoko atean ikusi zuenean, paper inportante horiek erakusteko eskatu zion. "Hi boche koipetsu bat haiz! Jazarritako 12.000 juduen izenean, hemen daukak dokumentua!" esan, errebolbera atera eta tiro egin zion Grynszpanek. Handik bi egunera hilko zen Rath.

Heriotzaren berria jaso zuenean, Adolf Hitler Munichen zegoen, garagardotegiko estatu-kolpe saiakeraren hamabosgarren urteurrena ospatzen, besteak beste Joseph Goebbels propaganda ministroarekin, zeinak SA-ko beteranoen aurrean hitzaldi pozoitsua jariatuko baitzuen hildako funtzionario nazia mendekatzeko ekintzara deituz; "manifestazio espontaneoak" egin behar ziren juduen kontra. Telegramak eta telefono-deiak berehala hasi ziren Alemania osoan barreiatzen hura martxan jartzeko.

Eta gero, infernua. Ehunka sinagoga sutan, milaka denda puskatuta, atzaparka arpilatuta. Juduen etxeak: eraso. Juduen ospitaleak: eraso. Juduen eskolak: eraso. Juduen hilerriak: eraso. Haien bizilagunak

izan ziren maizenik ehizaldietako txakurririk gosetienak. Nahi zutena egiten utzi zieten, poliziak ez esku hartzeko agindua jaso baitzuen. Suhiltzaileek ere bai, kiskalitako sinagogek inguruko "ariarren" etxeak kaltetzen ez zituzten bitartean, noski. 91 lagun hil zituzten gutxienez. *Kristallnacht, faschistische Pogromnacht, Novemberpogrome*: nola izendatu eztabaidagai da oraindik. Zalantza gutxi, hala ere: ezinbesteko inflexio-puntua izan zen ondorengo basakeria gertatzeko.

Horrek bereizten du, segur aski, 1938ko pogrom hura aurretik juduek jasandako beste guztietatik: zerbaiten amaiera eta beste zerbaiten hasiera da. Erasoen eskala aldatzen du, baita forma ere, estatuak zuzenean hauspotuko baititu handik aurrera, efizientzia osoz, legez babestuta; eta ordura arte pentsaezinak ziren dimentsioak hartu arte.

Ondo ikastekoa da: aitzakia konkretu bat probestuz, gutxiengoan dagoen komunitate baten aurkako kanpainarekin hasten da. Zurrumurruak eta egi-erdiak,

behin eta berriz –konstantzia osagai inportantea baita–, mezu simple bera mai-lukatuz: talde minoritarioko kide *guztiak* dira gehiengoarentzat arriskutsuak; zerbait egin ezean galbidean da gehiengoaren identitatea; inork ordenarik jartzen ez badu, guk egin beharko dugu. Gero jopuntuan jarriko dituzte beste batzuk ere, adibidez, talde nagusikoak izanda, minorariaren aurkako erasoak kritikatzeko dituztenak: horiek seinالاتu, lotsarazi, isolatu behar dira. Eta bitartean, programatutako biolentziaren benetako izaera lausotu: su-karraldia izan da, matxinada, jendea haserre dago. Dena indiferentziaz bizi dituztenek ere beren alea jarriko dute, batzuk eta besteak berdinduz, gauzak kasualitatez ez direla gertatzen esanez. Konturatzerako, eskuak garbitzeko erabiltzen duten xaboi-pastilla bezain suabe irristatu dira gertakariak pogrom-etik masa-indarkeriara.

Atzo Torre Pachecon eta herenegun Hernanin, hondamendi horretarako bidea hasi nahi izan dute batzuek. Garaiz gaude oraindik. ●



Bizi Baratzea

Orria

Lurrari begiratzeko diogunon

Kalean da 2. zenbakia: udakoa



Formatu berezia
Tolesturak
zabaldua poster
handi batera
helduko gara

**Uraren arabera
diseinatutako
landa bat bada**

Harri Herri Nekazaritza
proiektua, Uharteko Arakilen
Estitxu Eizagirre



TOMATEAK posterra

Tomatearen historia, Euskal Herrian bertakotutako
barietateak eta zaintzeko aholkuak Marta Barbak
azaldua eta Ione Larrañagak ilustratua



A ze pagotxa!

Nola lantzen da?
Garazi Zabaleta



Metabelarra nola egin

Urnietako Besabiko
Juan Mieli ikasia / Eli Pagola



Zer egin udan?

Baratzean / Jakoba Errekondo
Basoan / Markel Arriolabengoa
Haziekin / Kelo Arribas
Sendabelarrekin / Garbiñe Larrea



Xabirotza

Oinatz pozoituak
euskal hondartzetan
Eneko Bachiller



Batu mundua bizigarri eta eguneroko bizitza
gozagarri egiten dutenen komunitatera:

eginbizibaratzea.eus

Nahi duzuna jaso, nahi duzuna ordaindu



URNIETA

Mendia, natura eta lasaitasuna

Herriko ingurune naturalak eta berdeguneek plan mordoa eskaintzen dituzte aire zabalean:

Adarra (PR-GI-203) eta **Onddi (SL-GI-43)** mendietako ibilbideak,
Muniskuegainako multzo megalitikoak, Santsonarri, elurzuloak eta karobiak.

Donostiatik 12km eskasera kokatua dago eta ostatu-eskaintza zabala du.



Informazio +